



DERRIGORREZKO ESKOLALDIRAKO EUSKAL CURRICULUMA

OINARRIZKO TXOSTENA



Argitaratzaileak: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz

Diseinu eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Itzulpenak: Imanol Haro, Enara Azkue, Pascale Abalain, Françoise Boudinet

Koordinazioa: Joseba Ossa (BAKUN Itzulpen eta Argitalpen zerbitzuak S.L.)

DERRIGORREZKO ESKOLALDIRAKO EUSKAL CURRICULUMA

OINARRIZKO TXOSTENA

PROIEKTUAREKIN BAT EGITEN DUTEN HEZKUNTZA ERAKUNDE ETA SEKTOREAK

AICE, Ikastetxeen Elkarte Independentea
AIF, Arabako Ikastolen Federakundea
BIDELAGUN, Bilboko Elizbarrutiko Ikastetxeetako Gurasoen Federakuntza
BIE, Bizkaiko Ikastolen Elkarte
BIGA BAI, Ipar Euskal Herriko Eskola Publikoetako Gurasoen Federazioa
CCDD, Bilboko Elizbarrutiko Ikastetxeak
EIB, Eusko Ikastolen Batza
ESKOLA GIRISTINOAK, Ipar Euskal Herriko Eskola Girstinoak
EUSKAL HAZIAK, Ipar Euskal Herriko Eskola Girstinoetako Guraso eta Irakasleen Elkarte
EHIK, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
FAPACNE, Estatukoak ez diren Ikastetxeetako Ikasleen Guraso Elkarte Arabako Federazioa
FECAPP, Bizkaiko Guraso eta Ikasleen Federakunde Katolikoa
FEGUIAPA, Gipuzkoako Ikasle-Gurasoen Elkarte Federakuntza Librea
GIE, Gipuzkoako Ikastolen Elkarte
HUIS, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
IKASGE, EAEko Publikatutako Ikastoletako Gurasoen Federazioa
KRISTAU ESKOLA, EAEko Kristau Ikastetxeen Federazioa
NIE, Nafarroako Ikastolen Elkarte
SEASKA, Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa
SORTZEN-IKASBATUAZ, Euskal Eskola Publikoen Elkarte
SORTZEN GURASOAK, Sortzen Elkarteko Gurasoen Federazioa
UFEPA, Euskadiko Eskola Katolikoetako Guraso Elkarte Federakuntzen Batasuna

ZUZENDARITZA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
EHIK, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
KRISTAU ESKOLA, EAEko Kristau Ikastetxeen Federazioa
SORTZEN-IKASBATUAZ, Euskal Eskola Publikoen Elkarte

FINANTZAKETA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Oharra: Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren proiektua hezkuntza alorretik bultzatzen duten sektore eta erakundeen zerranda zabalik dago, bertan parte hartu nahi dutenek horretarako aukera izango baitute.

LANTALDEA

ZUZENDARITZA TEKNIKOA:

Aitor BILBAO, Lore ERRIONDO, Xabier GARAGORRI,
Pedro M. LEGARRETA

DISEINU TALDEA:

Xabier GARAGORRI, Jesús Mari GOÑI, Antoni ZABALA

HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRAK:

- Ikasten eta pentsatzen ikasi:**
M. Luisa SANZ DE ACEDO
- Komunikatzen ikasi:**
Itziar ELORZA, Josune GEREKA, Iñaki ZUBIZARRETA
- Elkarrekin bizitzen ikasi:**
M. Angeles DE LA CABA, Concepción MEDRANO
- Norbera izaten ikasi:**
Itziar ELEXPURU, Ana MARTINEZ, Virginia TORRES,
Lourdes VILLARDON, Concepción YANIZ
- Egiten eta ekiten ikasi:**
Iratxe ATXA, Joseba SAGARNA, Juan Mari RUIZ DE EGINO

CURRICULUM ARLOAK:

- Hizkuntzak eta Literatura:**
Itziar ELORZA, Mikele ALDASORO, Nerea GOIRI
- Matematika:**
Santiago FERNANDEZ, Fernando FOUZ,
Alberto BAGAZGOITIA
- Teknologia:**
Alfonso TEJEDOR, Alberto ARRIAZU, José Luis ASIN
- Musika eta Dantza:**
Ainhoa MARKINEZ, Xabier ZABALA, Itziar IRIGOIEN,
Pello GORROTXATEGI
- Adierazpen Plastikoa:**
Xabier EGAÑA
- Soin Hezkuntza:**
Jean Mari ITURBIDE, Mikel EGIBAR
- Gizarte Zientziak:** Francisco GOMEZ, Jon Andoni ATUTXA
- Mundu ikuskerak eta Erlijioak:**
Goyo PONCE DE LEON
- Natur Zientziak eta Osasun Zientziak:**
Agustín GIL, Elvira GONZALEZ, Iñaki MENTXAKA,
M. Teresa SANTOS
- Tutoretza eta Orientazioa:**
Justo BEREZIARTUA, Begoña BERROETA,
Irene LOPEZ-GOÑI



AURKIBIDEA

0.- SARRERA	4
0.1.- Beharren azterketa	4
0.2.- Esparru kontzeptuala	11
0.3.- Proiektuaren faseak eta parte hartzaileak	15
1.- CURRICULUM DISEINUA	17
1.1.- Oinarriak eta ezaugarriak	17
1.2.- Curriculum diseinuaren eskema	19
2.- HEZKUNTZAREN XEDEAK	22
3.- HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRAK	26
3.1.- Funtsezko edo oinarrizko konpetentziak derrigorrezko eskolaldian Europako eremuan	26
3.2.- Konpetentzia orokorrak Euskal Herriko eta Europako unibertsitateetan	28
3.3.- Hezkuntza konpetentzia orokorrak Euskal Curriculumean	29
4.- CURRICULUM ARLOAK	34
4.1. Curriculumaren antolaketa gure inguruko herrialdeetan	34
4.2. Diziplina arloen proposamena Euskal Curriculumean	35
4.3. Tutoretza eta orientazio arloa	37
5.- EUSKAL CURRICULUM OINARRIZKOA ETA KOMUNA GIZARTERATZEKO ETA BALORATZEKO PROZEDURA	38
5.1. Parte hartzeko eta parte hartzaileentzako irizpideak	38
5.2. Erabakiak hartzeko prozedura	39
5.3. Kronograma	39
BIBLIOGRAFIA	40
ERANSKINA Glosategia eta adibideak	41



0.- SARRERA

“Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren” proposamena unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemako hezkuntza eragileek elkarlanean egindako ekimenetik sortu da. Eragile horiek Euskal Herriko edo Euskararen Herriko lurraldeetako hezkuntzaren gehiengo zabala ordezkatzeko dute, eta proposamen hau Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin hitzartuta eta hark diruz lagunduta egin da.

Euskal Curriculumaren proposamenak elkarren osagarri diren bi helburu ditu. Batetik, proposamena izenpetzen duten erakundeek eta hezkuntza zentroek konpromisoa hartu behar dute Euskal Curriculum oinarrizko eta komunari dagozkion edukiak beren hezkuntza proiektuetan sartzeko, bai eta derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan haiek ebaluatzeko ere. Beste alde batetik, hezkuntza proiektuaren planteamendua hobetzeko plataforma izan behar du, euskal gizartearen, gizarte europarraren eta gizarte unibertsalaren beharretara egokitzeko eta ikasleek emaitza onak lortzea sustatzeko.

Proposamena orientagarria da, eta gizarte erakundeen esku jarriko da, batez ere hezkuntza erakundeen esku, proposamena ezagutu, eztabaidatu eta balioesteko. Euskal Curriculum aplikatzea aukerakoa bada ere, Euskal Curriculum oinarrizko eta komunari dagokion zatia onartzen duten erakundeek eta hezkuntza zentroek konpromisoa hartzen dute, hala nahi dutelako, curriculum aplikatzeko eta ebaluatzeko.

Dokumentu honen helburua proiektuaren planteamendu orokorra eta aurrera eramateko ildo nagusiak aurkeztea da, aurrerapen modura. Landutako Euskal Curriculumaren proposamena erakundeen eta hezkuntza eta gizarte eragileen esku jarriko da, 2005-2006 ikasturtean curriculum oinarrizko eta komunari buruz hausnartzeko, baloratzeko, eta, ahal bada, hitzartzeko.

0.1.- Beharren azterketa

“Euskal Curriculumaren” proiektuak elkarren osagarri diren bi behar eta helburu nagusiri erantzuten die. Batetik, euskal kulturaren transmisioa ziurtatzeko beharri; Euskal Herrian eragina duten hainbat administrazioen curriculum ofizialetan, kasu batzuetan, euskal kultura ez delako transmititzen, eta, beste kasu batzuetan, transmisioa ez delako nahikoa. Beste alde batetik, Euskal Curriculumaren barnean, euskal kultura espezifikoaren transmisioa eta Europako eta mundu osoko ondareari egin beharreko ekarpenaren bermea lortzeko planteamenduaz gain, Europan integratutako euskal gizarte batean eta munduarekin elkarreraginean bizi ahal izateko beharrezkoak diren kompetentziak ere sartu behar dira. Edgar Morin-ek dioenez (2000: 57)¹, partikularra eta unibertsala, batasuna eta aniztasuna, kontzeptu bereiztezinak dira:

Hezkuntzak kontu handia izan behar du giza espeziearen batasunaren ideiak giza aniztasunarena ez baztertzeko eta aniztasunaren ideiak ez dezan batasunarena baztertu (...) Kulturen arteko aniztasuna nabarmentzen dutenek giza batasuna gutxieteko edo baztertzeko joera dute, eta giza batasuna nabarmentzen dutenek biga-



rren mailan jartzen dute kultur aniztasuna. Komenigarria litzateke aniztasuna ziurtatzen eta aniztasuna bultzatzen duen batasuna sortzea, hau da, aniztasuna batasunean sartzea. Aniztasunaren eta batasunaren fenomeno bikoitza oso garrantzitsua da. Kultura, giza nortasunaren euskarri da; kulturak, gizarte nortasunen euskarri (...). Horrenbestez, kultura beti egoten da kulturetan, **baina “kultura”z hitz egin dezakegu kulturen ekarpenei esker** (egileak azpimarratua).



Kiribil bikoitza; eboluzio-inboluzio, zabaltze-kontzentratze, kanporako-barrurako, partikularrerako-unibertsalerako txandakako fase osagarrien erritmo kosmikoaren ikurra.

0.1.1.- Partikularretik unibertsalera

Giza espeziearen ezaugarrietako bat da, beste animalia espezien aldean, norbera hazteko dugun gainerakoenganako mendetasun maila. Beste ezaugarri osagarrietako bat da sozializazio prozesuak gizakia gizartean integratzeko duen garrantzia. Gizarteratze prozesua bizikidetzarako oinarritzko baliabideak ikasiz egiten da: hizkuntza, ohiturak, sinesmenak... Haurra ez da isolatuta hazten, jaiotzen denetik kulturalki antolatutako testuinguru batean bizi baita. Gizarteratzea, komunitate baten kultura barneratzeko prozesua da, eta prozesu hori nortasun heldu aitortua lortzeko ezinbesteko baldintza da.

Hezkuntzaren funtzio hori gauzatzea hizkuntza eta kultura transmititzea da, eta hori oinarritzko giza eskubidea da, **Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean** adierazten denez (1996ko ekaina):

28. artikulua: *Hizkuntz komunitate orok bere hezkuntza antolatzeko eskubidea du, komunitateko kideek beren kultur ondarea (historia eta geografia, literatura eta beste kultur adierazpen batzuk) eta nahi duen kulturaren adierazpenak ahalik eta sakonen ezagutzeko aukera izan dezaten.*

Beste alde batetik, curriculumaren barruan norik bere kultura sartzeko xedeak eta beharrak bat egiten dute UNESCOk 2001eko azaroaren 2an, Biltzar Nagusiaren 31. saioan, **Kultur Aniztasunari buruzko Deklarazio Unibertsalean** esandakoarekin:



Jabetuta kultura hizpide nagusia dela identitateari, gizarte kohesioari eta ezagutzan oinarritutako ekonomiaren garapenari buruzko egungo eztabaidetan,

azpimarratuta elkarrenganako konfiantza eta elkar ulertze giro batean, kultur aniztasunarekiko, tolerantziarekiko, elkarrizketarekiko eta elkarlanarekiko errespetua nazioarteko bakerako eta segurtasunerako berme onenetakoak direla, **printzipio hauek aldarrikatu eta Deklarazio hau onartzen du:**

1. artikulua- Kultur aniztasuna, gizadiaren ondare komuna

(...) izaki bizidunentzat aniztasun biologikoa bezain beharrezkoa da giza espeziearentzat kultur aniztasuna. Alde horretatik, gizadiaren ondare komuna da, eta aintzat hartu eta sendotu egin behar da egungo eta etorkizuneko belaunaldien onerako.

4. artikulua- Giza eskubideak, kultur aniztasunaren berme

(...) kultur aniztasuna defendatzea agindu etikoa da, eta gizakiaren duintasuna errespetatzearekin lotuta dago. Horrek giza eskubideak eta funtsezko askatasunak errespetatzeko konpromisoa dakar, batez ere, gutxiengoan dauden eta herri autoktonoetako kide diren pertsonenak.

5. artikulua- Kultur eskubideak, kultur aniztasunerako testuinguru egokia

Kultur eskubideak giza eskubideen baitan daude, eta giza eskubideak unibertsalak eta banaezinak dira eta elkarri lotuta daude (...). Horrenbestez, gizaki orok nahi duen hizkuntzan, eta bereziki bere ama hizkuntzan, adierazteko, sortzeko eta lanak zabaltzeko eskubidea izan behar du; pertsona orok bere kultur identitatea guztiz errespetatzen duen kalitatezko hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea du (...).

Hona hemen Jacques Delors-en zuzendaritzapean Nazioarteko Batzordeak UNESCOrentzat egindako Txostenean esaten dena (1996:55)²,

“Mundu osoan, hezkuntzak, ezaugarriak ezaugarri, helburu bera du: gizabanakoen artean erreferentzia komunitatetik eratorritako gizarte loturak eratzea. Hori lortzeko baliabideak desberdinak dira kultur eta testuinguru aniztasunaren arabera, baina kasu guztietan hezkuntzaren helburu nagusia da gizakiaren garapen sozial erabatekoa. Hezkuntza kulturen eta balioen eramailea da, gizarteratzailea, proiektu komun baten arragoa.”

Txosten horren arabera, bizitza osoko hezkuntzaren lau oinarriak hauek dira: ezagutzen ikastea, egi-ten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea. Beraz, hezkuntzaren funtzioa ez da bakarrik hizkuntza eta kultura transmitituz gizarteratzea; horrez gain, beste funtzio batzuk ere baditu: bizitzako eremu guztietarako prestatzea (familia, gizartea, lana...), ikasten ikasteko kompetentzia garatzea, gure giza izaera zein den ulertzea, pentsamendu kritikoa bultzatzea, sormen gaitasunak garatzea, gure ekin-tzen erantzule izaten laguntzea... Hezkuntzaren funtzio horiek eta beste batzuk ezin dira bata bestearen-gandik bereiztuta ulertu, hezkuntza prozesuaren baitan baizik.

Belaunaldiz belaunaldi kultura eta hizkuntza transmitituz gizarteratzeko prozesu naturala eta uniber-tsala, euskarara eta euskal kultura espezifikoari dagokienez, batere mesedegarriak ez diren baldintzetan kokatu behar da gaur egun. Esate baterako, ez dago euskal herritar guztiok komunean ditugun auzi



aurre-politikoaren gainean administrazioek aho batez eta elkarlanean egindako politikarik; euskara eta euskal kultura espezifikoa ahulak dira, hizkuntza eta kultura nagusien ezinbesteko lehian; euskal kultura espezifikoak ez du tokirik edo toki eskasa du curriculum ofizialetan eta ikasmaterialetan; etab. Horren guztiaren ondorioz, derrigorrezko hezkuntza bukatzen duen ikasleak ez du euskal kultura espezifikoari buruzko ezagutza nahikorik. Egia da azken urteotan egindako ahalegina (batez ere, azken 40 urteetan euskara, euskal kulturaren ezaugarriak garbiena, irakasteko egindakoa) handia izan dela, nahiz eta herrialdetik herrialdera aldeak egon. Dena dela, euskara biziberritzeko ahalegina handia izan arren, hizkuntzarekin lotuta dagoen kultura ikasteko prozesu banaezina, eskasa izan da. “Euskal Curriculumaren” proiektuak euskara eta euskal kultura espezifikoa indartzeko tresna izan nahi du, baina, betiere, planteamendu eleanitz eta kulturantz.

Bide horretan, oso lagungarria litzateke administrazioak elkarren artean koordinatzea eta hezkuntza gizarte eragileek euskal herritarrok ditugun elementu komunean laguntza ematea, **Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Kartan (1992-11-5)** adierazitakoaren ildotik:

14. artikulua. Mugaz gaindiko harremanak.

Kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte:

a) hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten eskualdeen gaineko estatuak dituzten bitariko edo askotariko akordioak betetzea edo amaieraraino eramaten saiatzea, estatu horietako hizkuntza beraren hiztunen arteko harremanak erraztu asmoz. Harreman horiek kultura, irakaskuntza, informazioa, lanbide-heziketa eta etengabeko prestakuntzaren arlokoak izango dira;

b) erregio edo gutxiengoen hizkuntza modu berean edo antzekoan erabiltzen duten lurraldeetako elkarlana erraztea eta/edo sustatzea, batez ere eskualde edo toki mailako elkartearen artekoa, beti ere erregio edo gutxiengoen hizkuntzen alde.

Euskal kulturak bizirik iraun du mende askoan. Inguruko baldintzen arabera egokitzen eta berritzen jakin duelako gertatu da hori, zalantzarik gabe. Dena dela, egungo globalizazio prozesuak ez die mesederik egiten kultura gutxituei edo/eta gutxiengoen kulturei; beraz, euskal kulturak denbora luzean iraun dezan nahi badugu, erronka honi aurre egin behar diogu: euskal kultura transmititzea, egokitzea eta biziberritzea bermatuko duten bitartekoak lortzeari. Errealitate eztabaidaekin hori kontuan hartuta, oraindik erantzunik gabe dugun galdera garrantzitsu bat sortzen zaigu: **euskal kulturari dagokionez, zer daukagu, eta, batez ere, zer eduki nahi dugu komunean Euskal Herrian bizi garenok?** Aniztasuna eta gizartearen erronka berrietara egokitzea beharrezkoak direla onartuta, muin partitu jakin baten inguruan antolatzea komeni zaigu galdera hauen balizko erantzuna, abiapuntu eta erreferentzia esparru bat izan ahal izateko.

Garrantzitsua da batasuna eta aniztasuna uztartzea. Bien arteko osagarritasuna beharrezkoa da euskal kulturaren planteamendu egokia egiteko. Hala ere, oraindik euskal kulturaren ezaugarri komunak zein diren edo zein izan daitezkeen jakiteko azterketa zorrotzik ez dugunez, partekatu nahi ditu-



gun eta partekatzen ditugun elementu komunak aukeratzeari eta definitzeari eman behar diogu lehentasuna. Bestela, ekonomiaren globalizazioak, nazioz gaindiko kultur industriak eta egituraketa geopolitikoaren joerak erabat bereganatu eta kultur eredu bakar eta uniformizatzailerik baten menpe jarriko gaitu.

0.1.2.- Unibertsialetik partikularrera

Euskal gizartearen sareen bidez antolatuta eta etengabe bilakatuz doan mundu gero eta globalizatuago baten baitan bizirik da. XXI. menderako hezkuntzari buruz, Jacques Delorsen zuzendaritzapean, Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena (1996) eta Europar Batzordeak Hezkuntzari eta Prestakuntzari buruz egindako Liburu Zuria (1995) kontuan hartzeko bi erreferentzia iruditzen zaizkigu, horietan oinarrituta, etorkizunean hezkuntzaren behar orokorren eta hezkuntzak gainditu beharreko erronken diagnostikoa egiteko aukera ematen baitugu. Bi txosten horietan oinarrituta, Euskal Curriculumaren erreferentzia eremu izateko honako elementu hauek nabarmentzen ditugu:

- **Ekonomia hazkunderik giza garapenera:**

Lehen mundua izenekoak, zientziaren, teknologiaren eta hezkuntzaren bultzadaren ondorioz, inoiz ezagutu duen hazkunde ekonomikorik handiena du gaur egun. Hala ere, egungo hazkunde ereduaren ondorioz, iparraren eta hegoaren arteko desberdintasunak areagotzen ari dira, langabezia handitzen ari da, eta, gizarte desberdintasunak handitzeaz gain, gizarte eta kultur bazterketak eragindako arriskuak handitzen ari dira. Bestalde, egungo ekoizpen erritmoaren ondorioz, baliabide ez-berriztagarriak urritzen ari dira, eta, kutsaduraren bidez, natura hondatzen ari da. Ekoizpena besterik nahi ez duten ereduak irteerarik gabeko kaleetara garamatzate; hortaz, ezinbestekoa da alderdi etikoak, kulturalak eta ekologikoak kontuan hartuko dituen eredu humanistagoa eta luzarora garapena bideragarria izango dela ziurtatuko duen garapen jasangarriaren eredu bultzatzea. Ikuspegi horretatik, hezkuntzak ekonomiari nahiz lan arloari lotutako helburuak ere badituela baztertu gabe, funtsezkoa da giza garapenerako hezkuntza sustatzea. Hona hemen hezkuntza horren ezaugarriak³:

Ⓐ Oinarrizko hezkuntza orokorra guztientzat ziurtatzea, denek “bizitzarako pasaportea” izan dezaten. Hona hemen oinarrizko hezkuntza garatzeko kontuan hartu beharreko orientabideak:

- Helburua gizakiaren garapen osoa lortzea da; betiere, gizakia gizaki dela onartuta, ez ekoizteko tresna edo baliabidea.
- Beste prestakuntza maila batzuetara iristeko behar dituen ezagutzaren elementu guztiak bermatu behar ditu.
- Pertsona bakoitzari bere bizitza eta kultur aukeraketa askatasun osoz eratzeko baliabideak eman behar dizkio, gizartearen eboluzioan parte hartuz.
- Gainera, teknologia berriak erabiltzeko gai diren ekonomia eragileak trebatu behar ditu eta ingurumenarekin jokabide berritzailea eta begirunezkoa izan behar du.



ⓑ Etengabeko hezkuntza bultzatzea, etengabe aldatzen ari den mundu honetan, garatzeko nahiz aldaketetara egokitzeko gai diren pertsonak behar baitira. Horrenbestez, etengabeko hezkuntza ez da izango enplegurako egokitze hutsa, baizik eta bizitza osoko hezkuntza, pertsonaren garapen harmoniatu eta iraunkorra bideratuko duena.

ⓒ Enplegurako eta jarduerarako kompetentzia garatzea. Horretarako, lehen aipatutako oinarrizko ezagutzez gain, ezagutza teknikoak (Informazio Teknologien sarrera orokorra) eta harremanetarako kompetentziekin lotutako gizarte jarrerren hezkuntza (elkarlana, talde lana) izan behar ditu.

- **Gizarte lotura gabeziatik, desberdintasunetatik, bazterketatik eta indarkeriatik gizarte kohesiora eta parte hartze demokratikora:**

Hezkuntzaren helburua gizabanakoen arteko gizarte loturak finkatzea izan da, da eta izan beharko du aurrerantzean ere, kultura eta balioak transmitituz sozializaziorako eremu bat eta bizikidetzarako proiektu komun bat ziurtatzeko. Hezkuntzari atxikitzen zaion gizarteratze eta bizikidetzaren funtzioa betetzea gero eta zailagoa da; izan ere, gizartean gero eta handiagoak dira gizarte desberdintasunak, pobrezia eta bazterketa (ekonomia eta gizarte krisia); indarkeria eta delinkuentzia gehiago dago (balio etikoen krisia); zibilizazioen eta etnien arteko liskar gehiago daude (kultur krisia). Hezkuntzak ezin ditu bere kabuz gizarte loturen hausturak sortutako arazoak konpondu, baina elkarrekin bizitzeko nahia indartzen lagun dezake, eta hori gizartearen kohesioaren eta nortasun soziopolitikoaren aldeko oinarrizko faktorea da. Hezkuntzak kohesioaren aldeko faktore izaten jarrai dezan, lan ildo hauei heldu behar die:

- ⓓ Gizabanakoen aniztasuna eta espezifikotasuna aitortzea eta onartzea: irakaskuntza pertsonalizatzea.
- ⓔ Gizarte bateko talde bakoitzaren kultur adierazpenen aberastasuna aintzat hartzea eta horiek estimatzen irakastea.
- ⓕ Gizabanako bakoitzari, batetik, bere komunitatearen barruan E. kokatzen laguntzea, eta, bestetik, aldi berean beste komunitate E. batzuetara irekita egoteko baliabideak ematea.
- ⓖ Elkarrekiko tolerantzia eta errespetua bultzatzea.
- ⓗ Euskara ardatza duen hezkuntza eleanizduna bultzatzea, eta ama hizkuntza errespetatzea.
- ⓓ Bazterketa sortzen duen eskola porrotaren aurka jardutea.
- ⓙ Pertsonak prestatzea, eguneroko bizitzan beren erantzukizunak betetzeko ahalmena izan dezaten.
- ⓚ Demokrazia praktikatzea, hau da, hezkuntza erakundearen parte hartzea eta ardurak banatzea.
- ⓛ Pentsaera libre eta ekintza autonomoak ahalbidetzen dituen kompetentzia kritikoa lantzea.
- ⓓ Gizabanakoaren askatasun eta erantzukizun printzipioak uztartzea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan.

- **Zientzia eta teknologia:**

Ezagutza zientifikoaren garapenak eta objektu teknikoaren ekoizpenak –bai eta horien hedapenak ere– aurrerapenaren alde egiteko ahalmen handia duen gizarte batean, hezkuntzak hau lortu behar du:



Ⓝ Kulturaren dimentsio zientifikoa eta teknikoa bultzatzea.

Ⓞ Erantzukizuna garatzea, hori baita berme bakarra zientzia eta teknologia oker erabiltzeak eragin ditzakeen efektu gaiztoak gainditzeko (gizateriaren eta naturaren suntsipena), bai eta informazio gizartearen erabilera okerrak eragindako ondorioak gainditzeko ere (giza duintasunaren aurka egitea).

- Globalizazioa-mundializazioa:

Munduan dagoen elkarmenpekotasuna eta mundializazioa nagusitu zaizkigun errealitateak dira dagoeneko. Horren oinarrian, giza hazkunde demografikoa dago, eta ekonomian, teknologian, komunikazioan eta nazioarteko migrazioetan islatzen da. XXI. mendean areagotu egingo da joera hori. Egoera horretan, eskolak hau lortu beharko luke:

Ⓟ Izatezko elkarmenpekotasunetik desio dugun elkartasunerako jauzia ematen laguntzea.

Ⓠ Espiritu kritikoz ezagutza multzo bat eskuratzea eta gertaerak erlatibizatzen ikastea (iritzia eratzea).

Ⓡ Gizakia eta ingurumena lotzen dituen harremanak ulertzea.

Ⓢ Nor bere identitatearen barruan ixteko joera gainditzea, aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta, besteak onartzeko eta ulertzeko.

Ⓣ Gizabanakoa bere sustraiez jabetzea, bere burua munduan kokatzeko erreferentzia puntuak izan ditzan.

- Informazio gizartea

Bultzada hori bi aldaketa handi eragiten ari da gaur egun: industri iraultza berri bat sustatzen ari da, eta ohiko informazio iturri eta moduak ordezkatzeko ari da. Bigarren aldaketari dagokionez, bide telematikoak ohiko informazio iturriak eta moduak (dokumentu idatziak, eskola...) ordezkatzeko ari dira, informazioaren autopistaren abantailak eskaintzen baitituzte (Internet...). Egoera horretan, eskolak hau lortu beharko luke:

Ⓤ Ikasleak hizkuntzari dagozkion oinarrizko konpetentziak barneratzen dituela ziurtatzea.

Ⓥ Informazioa modu kritikoan eta arrazionalen interpretatzeko konpetentzia eta ohitura bultzatzea.

Ⓦ Informazio telematikoaren gizartean pertsona guztiak erabiltzaile izateko eta, behar izanez gero, ekoizle izateko konpetentzia izatea.

Ⓧ Multimediako produktuen kalitatea bermatzea –batez ere, edukiena–, historiako, geografiako eta kulturako erreferentziak gal ez daitezen.

- Gizarte segurutik gizarte anitz eta gogoetatsura

Etengabe berriz pentsatua den gizarte batean bizi gara; ez dago bizitzeko eta pentsatzeko modu bakarra, aukera ugari baizik. Aldaketa ekonomikoez gain, gizarte aldaketak daude (esate baterako, krisi eta ezinegon egoerak), eta aldaketa horiek familia nuklear patriarkala erdigune zuen bizimoduetara eta gizarte antolaketetara hedatu dira; aurreko eredu horren orde, berdintasunean oinarritutako beste harreman mota batzuk nagusitu dira, eta elkarrekin bizitzeko aukera ugari sortu dituzte. Horrez gain, balio tra-



dizionalak erlatibizatu egin dira; zalantzan jartzen dira beraz, ordezkaritza bidezko sistema demokratikoa eta estatu-nazio kontzeptua, eta deslegitimatze prozesuan sartzen dira. Egoera horren aurrean, eskolak hau lortu beharko luke:

- ① Bizitza osoan zehar autonomoki ikasten lagunduko duten eduki kulturalak transmititu eta hezkuntza konpetentzia orokorren irakaskuntza uztartuko dituen hezkuntza eredua bultzatzea.
- ② Irakaskuntza eredu gogoetatsua eta kritikoa bultzatzea, manipulazioari eta konformismoari eraginkortasunez aurre egiteko.

0.2.- Esparru kontzeptuala

“Curriculum” eta “euskal” kontzeptuek esanahi ugari dituzte. Curriculumuma ulertzeko modua faktore askoren arabera aldatzen da: curriculumaren objektu materiala ulertzeko moduaren arabera (esperientziak, planifikazioa, ezagutza, emaitzak, orientabideak...), irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren denboran aplikatzean hartzen duen tokiaren arabera (proaktiboa, aktiboa, post-aktiboa) eta onartutako ikuspuntu teorikoen arabera (positibista, interpretatiboa, soziokritikoa). “Euskal” hitzak ere esanahi ugari ditu. Batetik, “euskal” hitzak Euskal Herrikoa dena, Euskal Herrian bizi dena edo euskaldun sentitzen dena esan nahi du, baina “euskaldun” hitzak euskaraz, euskalduna ere esan nahi du, hau da, euskaraz mintzatzen dena. Bi kontzeptu horiek batzeak –“curriculum” eta “euskal”– ez dakar unibokotasunik. Horregatik, atal honetan hitz hauek definituko ditugu: “Curriculum”, “Euskal Curriculum” eta “Euskal Curriculum espezifikoa”. Bide batez, “Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna” nola ulertzen dugun ere azalduko dugu.

0.2.1.- Curriculum, Euskal Curriculum eta Euskal Curriculum Espezifikoa

Hezkuntzaren eremuan, nahiz eta esanahi ugari izan, «curriculum» edukien programa bat da; hain zuzen ere, eduki horiek zehazten dute ikasleek mailak eta ikasketa gainditzeko eta behar den titulua eskuratzeko jarraitu beharreko *ibilbidea* edo *karrera*. Lan honetan, **curriculum** hitza honela definituko genuke: *ibilbidearen amaieran eskuratu beharreko kultur ibilbidearen eta konpetentzien proposamena da, eta bi helburu ditu: batetik, pertsonak gizabanako, gizartekide eta izadikide gisara erabateko garapena lortzea; eta, bestetik, belaunaldi gazteak gizartean integratzea eta etengabean berritu eta eguneratutako proiektu komuna eraikitzea.*

Gure ustez, “Euskal Curriculum” zera da: *munduaren ikuspegi jakin batetik egindako kultur prozesuen eta produktuen hautaketa. Kultur prozesu eta produktuetan, euskaldunontzat berezkoak direnak eta unibertsalak sartzen dira.* Horrenbestez, Euskal curriculumaren helburua ez da soilik euskaldunon berezko kultur prozesu eta ekoizpenak bakarrik aukeratzea, gizateria osoarenak ere hartzen baititu bere baitan, betiere, gure testuinguru jakina oinarri gisa hartuta.

Euskal curriculumaren proposamenak bi asmo ditu. Euskal Herriaren eta munduaren kultur ondarearen oinarrizko adierazpenak hautatzerakoan, bizikidetzat errazteko erreferentzia eremu komun bat eratzen



dugu. Erreferentzia komunak partekatzeak, “gutasuna” garatzen laguntzen du, eta, horrenbestez, elkarrekin bizitzeko gogoia ere bai. Baina, erreferentzia komunen beharraz gain, garrantzi handia du euskal curriculumean, eleaniztasun eta kulturartekotasun planteamenduak sartzeari, are gehiago euskal gizartea eleantza eta kulturantza izanik. Bi helburu horiek, batasuna eta aniztasuna, elkarren osagarri dira.

“Curriculum” eta “kultur ibilbide” kontzeptuak baliokide hartu ditugu. Horren ondorioz, “**kultura**” eta “**euskal kultura**” kontzeptuak azaldu beharrez gaude, ezaugarri nagusiak aipatuz bada ere. Kulturaz ari garenean ezaugarri hauek hartzen ditugu kontuan:

- Barneratutako jokabideak eta balioak, nahiz eta zenbait kasutan berezkoaren eta kanpotik bereganatutakoaren arteko mugak ez dauden argi.
- Eguneroko bizitzak sortutako oinarrizko beharrei erantzuteko giza talde batek urratzen dituen bideak, bizitzeko moduak eta arauak (kultur materiala).
- Gizabanakoa talde bateko kide izateko (hau da, taldera egokitze) taldearengandik jasotzen dituen bizimodu eta arauak (gizarte kultura).
- Bizitzeko adierazpen eta arau horiek gizabanakoarentzat eta taldearentzat duten esanahia; hau da, herri edo gizarte jakin batek gizakiaz, gizarteaz eta naturaz dituen ideia, balio eta arau adierazgarrien sistema (kultura sinbolikoa).


Barandiaranek (1985)⁴, gizabanakoek eta giza taldeek bizitzeko dituzten oinarrizko premiak kategoriara sailkatzeko asmoz, zazpi ardatz definitu zituen:

- *Nola lortuko ditut janari-edariak eta osasuna?* Galdera horren erantzuna inguruneak eskaintzen dituen aukerei lotuta dago batetik, eta ingurunearen eta gizakiaren elkarrekin, bestetik; gizakiak, ekoizpen ekonomikoaren, merkaturatzearen, teknologiaren eta abarren bidez, oinarrizko behar horientzako kultur irtenbide espezifikoak aurkitzen ditu.
- *Nola babestuko naiz?* Giza taldeek bizitza, janzkera... moduen bidez erantzuten diete behar horiei, baita defentsa moduen bidez ere.
- *Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta behar ditudan materialak eta indarrak nire esku jartzea?* Galdera horren erantzuna giza taldeen eta gizateriaren zientzia eta teknologia garapenaren historian daude.
- *Nola lortuko dut nire parekoen laguntza eta nola antolatuko dut gizarte bizitza?* Behar horren irtenbideak sortu ditugun gizarte antolaketa dira: familia, auzoa, herria, herrialdea, estatua, nazio komunitateak, eskolak, sindikatuak, elkarteak, etab.
- *Nola komunikatuko naiz nire kideekin?* Behar hori hizkuntzen eta komunikatzeko bitartekoen bidez betetzen da, eta hizkuntza idatzia eta ahoskoa dira komunikazio modurik garrantzitsuenak.
- *Nola egingo ditut atsegina eta gustuko ditudan gauzak?* Behar hori plastikaren, musikaren, dantzaren, joku/jolas eta abarren bidez gauzatzen da.



- *Nor naiz ni, zer da gizakia, zein bere xedea?* Galdera horren erantzuna dira sinismenak, sinboloak, mitoak, etab., patua azaltzen, esanahia ematen eta gizakia zergatik eta zertarako galderei erantzuten saiatzen direnak.

Premia horiek ez dira hartu behar beren baitan itxita dauden esparru isolatutzat, elkarreraginean dauden eta bata bestea baldintzatzen duten premiaztat baizik.



Behar horien erantzunak (bizimoduak, arauak eta balioak) historikoak dira, eta, beraz, aldakorak. Kulturaren Euskal Plana (2004:17)⁵ proposamenaren ildotik, **euskal kultura** honela ulertzen da: “jasotako funtsezko kulturaren, norberaganatutako kulturaren eta egungo euskal herritarren kulturaren eta osotasunaren emaitza”. Euskal kultura modu horretan ulertuta, Euskal Curriculumean jasotako funtsezko kultura, norberaganatutakoa eta egungo euskal herritarrena uztartu egin behar direla ondorioztatzen da.

Euskal Herrian, kultur adierazpen propioak eta jasotakoak daude, eta lehenago adierazitako beharrei erantzuten diete. Erantzun historiko horien edo/eta egungo erantzunen ezaugarri adierazleak dira elikadura, gastronomia, janzkera, lektuzeko moduak, gizarte eta politika antolaketa, elkarbizitza, zuzenbidea, hizkuntza, ahozko eta idatzizko literatura, joko/jolas eta kirolak, jaiak, musika eta dantza, mitoak, sinboloak... ezaugarriak. Beraz, ezin da ukatu berezko kultur adierazpenak daudela; eta berezko kultur adierazpen horien artean, euskara da guztietan garrantzitsuena. “**Euskal Curriculum espezifiko**” deitzen diegu kultur adierazpen propioei edo geureganatuei, Euskal Herrian sortu edo sustraitu direnei.

0.2.2.- Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna


“Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna” derrigorrezko eskolaldia bukatutakoan ikasle guztiek (curriculum komuna) garatu eta erakutsi behar duten kompetentzia multzoa da (ezagutzak, trebetasunak



eta jarrerak). Konpetentzia horiek ez dira eskolan irakatsitako eta ikasitako guztiak, baizik eta oinarrizko-tzat hartzen direnak (oinarrizko curriculumuma).

“Curriculum komunaz” ari garenean, hezkuntzaren eta eskolaldiaren oinarrizko helburuetako bat dugu buruan, J. Delorsen zuzendaritzapean UNESCOri egindako txostenean adierazten denez (1996:55)⁶: *“Hezkuntzaren xede nagusia gizakia gizartean erabat garatzea da. Hezkuntza, kulturen eta balioen eramailea da, gizarteratzegilea, proiektu komun baten arragoa”.*

Euskal Curriculumaren proposamenaren helburua, batetik, XXI. mendean euskal herritar unibertsal gisara bizi ahal izateko ezinbesteko eta oinarrizko konpetentzia komunak bermatzea da. Ikuspegi horretatik, proposamenak irekia izan behar du, curriculum dibertsifikazioak tokia izan dezan eta gizabanakoen desberdintasunak eta inguru bakoitzaren kultur elementuak kontuan hartzeko.



Euskal Curriculumuma egiteko, elkar ukitzen duten eta osmosian dauden elementu edo unibertso hauek integratzea proposatzen dugu: euskara eta euskal kultur espezifikoa (euskal curriculum espezifikoa), gainerakoen ardatzak; Euskal Herrian ukipenean ditugun hizkuntzak eta kulturak; curriculum ofizialetako derrigorrezkoak; Europakoak; eta unibertsalak. Beraz, elementu horiek ez dira inola ere isolatuak, elkar-reraginean baitaude.

Proposatzen dugun Curriculum oinarrizkoa eta komunaren ezaugarria beraz, irekitasuna da, eta ez uniformizaioa.



0.3.- Proiektuaren faseak eta parte hartzaileak

Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren proiektua hainbat fasetan garatzen ari da. Proiektuaren **lehenengo fasean**, Euskal Curriculumaren egoera diagnostikatu eta esparru teorikoa eraiki zen. Euskal curriculumaren diagnostikoa egiteko, Espainiako eta Frantziako Estatuetak, Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko curriculum ofizialak aztertu ziren. Honako ondorio hauetara iritsi ginen: oro har, guztiek curriculumaren eduki bertsuak partitzen dituzte; Frantziako Estatuan dauden euskal eskoletako programetan ez dago euskarari eta euskal kulturari buruzko aipamenik; Espainiako Estatuan dauden euskal eskoletako curriculum ofizialetan elementu bereizle gutxi daude, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko curriculumen zati gehienak Espainiako Estatuako curriculumarekin bat egiten dute.

Bigarren fasean, “*Euskal Curriculumuma: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena*” izeneko lana argitaratu zen. Argitalpen horretan, galdera honi erantzun nahi izan zaio:

Euskal kultura espezifikoa eta unibertsalari dagokienez, zein dira Euskal Herrian bizi den edo Euskal Herriarekin identifikatzen den pertsona jaso batek ezagutu beharreko gertaerak eta kontzeptuak, garatu beharreko prozedurak eta trebetasunak, barneratu beharreko jarrerak eta balioak?

Lan horren bidez, ikuspegi oso bat eman nahi da, Euskal Curriculumtzat hartzen dugunaren erreferentzia hezkuntzan gabiltzan sektore guztiok izan dezagun: familiak, eskolak, unibertsitateak, kultur elkarteak, hedabideak...

Hirugarren fasean, gaur egun lantzen ari garena, “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna” definitzea eta onartzea da helburua, bai eta curriculumuma abian jartzeko behar diren bitartekoak eta giza baliabideak planifikatzea ere. Hona hemen erantzun beharreko galdera:

Euskal kultura espezifikoa eta unibertsalari dagokienez, zein dira Euskal Herrian bizi diren ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan partekatu beharreko curriculumuma edo oinarrizko kompetentzia komunak; hau da, ezagutu beharreko gertaerak eta kontzeptuak, garatu beharreko prozedurak eta trebetasunak, eta barneratu beharreko jarrerak eta balioak?

Xedea, curriculumaren oinarrizko eduki komunak adostea da, ikastetxe bakoitzean osatzeko zabalik gera dadin, betiere, ikastetxearen hezkuntza proiektu espezifikoarekin bat eginez. Helburua oinarrizko curriculum komuna definitzea eta horri buruz erabakitzea bada ere, pentsatu dugu beharrezkoa zela isolatuta ez aurkeztea, curriculumaren planteamendu integralaren barnean kokatuta baino; hau da, hezkuntzaren xedek, hezkuntza kompetentzia orokorrak eta arloetako kompetentziak bildu ditugu. Euskal Curriculumaren proposamena egin dugunok, proposamen hau izenpetu duten hezkuntza sektoreak dira, eta baliagarria izango da, baldin eta borondatez onartzen badute ikastetxeek eta hezkuntza sareek. Horregatik eta horretarako proposatzen dugu, Euskal Curriculum oinarrizko eta komuna eztabaidatzea, balioestea eta hautatzea, hezkuntza eta gizarte eragileek parte har dezaten. Horrez gain, onartutako curriculumuma abian jartzeko behar diren bitartekoen eta baliabideen



aurreikuspen bat egin beharko da: irakasleen prestakuntzarako plana, material kurrrikularra eta erreferentziazko materiala egitea...

Ondorengo fasean, Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum oinarrikoa eta komuna **zabald****u**, **aplikatu**, **ebalatu eta eraberritu** beharko da. Aurreko faseetako lana asmo hutsean geratuko da, praktikan gauzatzen ez bada. Zehazki, beharrezkoa izango da irakasleak prestatzeko plan bat egitea; plan horrek, batetik, euskal kultura espezifikoa buruzko ezagutzak ematea aurreikusi beharko du, eta, bestetik, irakaskuntza metodologian prestatzea. Konpetentzien araberako planteamenduan, gaika edo irakasgaika sailkatutako ezagutza ez da, jada, ardatza; garrantzitsuena pertsonaren garapen osoa da. Beraz, gaien edukiak garrantzitsuak dira ez euren baitan, osoko heziketan lagungarriak diren neurrian baizik.

Gainera, beharrezkoa izango da Euskal Herriaren antzeko ezaugarriak dituzten herrialdeetan proiektua ezagutarazteko estrategiak aintzakotzat hartzea, proposamena euskal curriculumaren bilakaeran interesa duen herri guztientzat baliagarria izatea nahi baitugu.

Euskal Curriculumaren proiektua Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren (EHIK) ekimenez sortu zen, eta, urratsez urrats, erakunde gehiagok parte hartu dute. Lehenengo fasean, Sortzen Ikasbatuaz eta Udalbiltza partzuergoa elkartu zitzaizkion. Bigarren fasean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Hirugarren fasean, hezkuntza eremuan diharduten beste erakunde batzuek ere parte hartzeko aukera ireki da, eta gaur egun irekita dago, partaide gehiago izateko asmoz.



1.- CURRICULUM DISEINUA

Curriculum diseinutzat hartzen dira bai curriculum proposamena egiteko gida moduan erabiltzen den eskema, bai azken produktua edo dokumentua, curriculum garatzeko edo aurrera eramateko fasearen aurrerapena. Curriculum diseinua curriculum proposamena gauzatzeko egitura eta gida edo eredu moduan erabiltzen den eskema da, baita curriculum proposamen hori egiteko erabiltzen diren oinarriak eta ezaugarriak ere.

1.1.- Oinarriak eta ezaugarriak

Curriculum teoriaren konplexutasuna kontuan izanik, Euskal Curriculumaren printzipio eta ezaugarri batzuk aipatuko ditugu, curriculum diseinua zehazteko egoki iruditzen zaizkigunak. Oinarri eta ezaugarri horiek curriculumaren proposamena prestatzeko eta ebaluatzeko ere baliagarriak dira.

Izaera hezitzailea:

Curriculum diseinuaren ezaugarriak zehazteko, beharrezkoa da ongi bereiztea *derrigorrezko hezkuntzarako curriculum* eta *derrigorrezkoaren aurreko eta ondoko hezkuntzarako curriculum*. Derrigorrezko hezkuntzaren kasuan (hori landuko dugu dokumentu honetan), guztiei eskaintzen zaienez, izaera hezitzailea izan eta azpimarratu behar du; gauzak horrela, ez du gailendu behar, funtsezkoa bada ere, alderdi profesionalak. Derrigorrezkoaren ondokoak ordea, oinarri hezitzailea badu ere, unibertsitateko ikasketara edo lanbide ikasketara bideratutako helburuak ditu.

Gizarte demokratiko batean, hezkuntza sistema hiritar guztiei heldu behar zaie; helburua, beraz, ez da soilik eremu akademikoko eta profesionalerako kompetentzietan hezteak, gizarte batean bizitzeak eragingo dizkion arazoei eta gaiei erantzuten jakingo duen hiritar gisa aritzeko kompetentzia horiek guztiak landuko dituen heziketa ematea baizik.

Euskal curriculumaren diseinuak beraz, curriculum *hezitzailearen* alde egiten du, heziketa instantzien eta nazioarteko erakundearen deklarazioekin eta adierazpenekin bat etorritik; hori dela eta, helburuak gizakiaren gaitasun eta eskumen guztiak garatzera bideratzen dira, eta baita, logikoki, unibertsitaterako eta lanerako beharrezko kompetentziak garatzea ere.

Desberdintasunak bildu eta bideratzen dituen heziketa:

Derrigorrezko hezkuntza sistema guztiei zuzenduta dagoenez, eta gizakiaren gaitasun guztiak garatu behar dituen erabateko aldaketa dakar aurreko hezkuntza sistemek ikasleen hautaketarako zuten ikuskera tradizionalan. Derrigorrezko hezkuntzaren helburua pertsonaren osoko prestakuntza denez, ikasleen ikaskuntza prozesuak gainbegiratzeko eta baloratzeko irizpideek *orientatzaileak* izan behar



dute, bai garapen afektiboari eta pertsonen arteko garapenari lotutako arloetan, bai arlo profesionalean eta akademikoan. Azken helburua hezkuntza sistemak ikasleen gaitasun guztiak garatzen laguntzea da, bakoitzaren aukera errealen arabera.

Hauek dira curriculum proposamenaren **barne kalitatea** baloratzeko irizpideak eta adierazleak: a) finkatutako hezkuntza xedeak islatzea; b) Izaera orientatzailea izatea, eta ez selektiboa, aipatu dugun moduan; c) Proposamena irekia izatea, eta dibertsifikazioari bide ematea, norbanako bakoitzaren desberdintasunei erantzuteko; d) Curriculum oinarrizko eta komunerako aukeratutako edukiak Euskal Herri osoko ikasleentzat baliagarriak izatea; e) Bereganatzeko oztoporik ez izatea (aukera berdintasuna); f) desberdintasunak gainditzeko bideak zabaltzea; g) Euskal Herriaren beharrei erantzutea; h) Inguru bakoitzeko kultur elementu espezifikoak sartzeko beharrei erantzutea (indibidualizazioa eta kultur artekotasuna). Kalitate irizpide horiek curriculum diseinua baloratzeko erabil daitezke, baina curriculum diseinuaren balizko balioa, praktikan jartzen denean gauzatuko da.

Kalitate teknikoa:

Curriculum proposamena egiteko eta **kalitate teknikoa** baloratzeko irizpide garrantzitsuenetako bat proposamenaren barne koherentzia da. Curriculum proposamenak barne koherentzia duela esan dezakegu beharren eta curriculumaren osagaien (xedeak, hezkuntza konpetentzia orokorrak, helburu espezifikoak eta ebaluazio irizpideak...) diagnostikoaren deribazio prozesuak, zehaztapen mailetan, jarraipena duen heinean; azken zehaztapen mailak aurreko mailak hartzen dituela.

Proposamen orientatzailea, eta borondatez ezartzekoa:

Aurkezten dugun curriculum "proposamena" hitzak berak adierazten duen moduan, Euskal Herrian ordezkari zabala duten hezkuntza sareen ekimenaren bidez sortutako proposamena da; Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailarekin hitzartu da, eta Euskal Herriko ikastetxe guztiei dago irekita.

Proposamen orokor horretan, bi proposamen mota bereiz daitezke: a) eztabaidatzekoa dena, baina ez erabakitzekoa; b) eztabaidatu eta erabakiko den Curriculum oinarrizkoa eta komuna.

Eskaintza bat egiten da, behin deliberamendu prozesuak burutu ondoren, erakundeek eta ikastetxeek Curriculum oinarrizkoa eta komuna sinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartu dezaten. Curriculum proposamenaren gainerakoa ezartzea hautazkoa izango da, eta ez da konpromisoen mende egongo. Ez da proposamen arau emailea, baina hezkuntza administrazioek integratzeko aukera hor dago.

Irekia:

Partekatu nahi dugun Euskal Curriculum oinarrizko eta komuna irekita dago ondoko garapenatarako. Beraz, ikastetxe bakoitzak bere testuingurura egokitu ahal izango du curriculum proposamena.



Egungoa eta etorkizuneko:

Euskal Curriculumeko “Hezkuntza konpetentzia orokorrak” planteamendua, bat dator, oinarrizko ildoetan, Europako Batzordearen proposamenekin eta Europako herrialde gehienetan onartzen ari diren curriculum ofizial gehienek joerekin. Baita ere bat dator ikasleen ebaluazioari buruzko OCDE PISAren (2000:22)⁷ egitasmoarekin, non ezaupideak “bizitzarako beharrezkoak diren konpetentzia” modura definitzen diren. Proiektu hau bat dator, eta oso modu esanguratsuan, Europako eta Euskal Herriko unibertsitateetan egiten ari den ikasketa planen egokitzapenarekin (Bolognako adierazpenaren arabera). Bat etortze horrek balio erantsia ematen dio Euskal Curriculumaren proposamenari, eta derrigorrezko eskolaldirako Europako gainerako herrialdeak egiten ari diren planteamenduen eta ebaluazio sistemen ildokoa da; jarraipena du derrigorrezkoaren ondoko goi mailako irakaskuntza planteamenduekin.

Izaera partehartzailea:

Euskal Curriculumaren proposamena prestatzeko, lankidetzan ari dira proposamena sustatzen duten erakunde eta elkarteak. Zuzendaritza teknikoa eta Diseinu taldea osatzeko eta “Hezkuntza konpetentzia orokorrak” eta “Diziplina arloak” proposamenak egiteko taldeak osatzeko orduan, Euskal Herri osoko lurraldeetako adituak egotea, eta haien parte hartzea bermatzeko saiakera egin da.

1.2.- Curriculum diseinuaren eskema

Hezkuntzaren xedeak

Hezkuntzaren helburuak xede moduan planteatzen dira, eta oso orokorrak dira, bizi osoko hezkuntza prozesuak bideratu eta horiei zentzua emateko; derrigorrezko eskolaldia ere kontuan hartzen da. Orokortasun maila hori bi asmok eragiten dute: batetik, derrigorrezko eskolaldiaren funtzioa ikasleak prestatzea eta oinarrizko eta beharrezko ekipamendua ematea da, bizitzaren ibilbideari oinarri sendoekin ekiteko, baina horiek uneoro eguneratu beharko dira bizitza osoan zehar; bestetik, desberdintasuna nabarmentzea, baina, aldi berean, Euskal Curriculumuma curriculum ofizialetan integratzeko edo haien osagarri izateko aukera, curriculum ofizialetako hezkuntzaren helburuen formulazioekin ez estaliz.

Hezkuntza konpetentzia orokorrak


Horrela ezarritako hezkuntzaren xedeek ezin dute, besterik gabe, eskolaldi osoaren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan jarraitu beharreko urrats zehatzak zehaztu, izaera globala eta orokorra dutelako.

Beharrezkoa da helburu horiek ikasketa konpetentzia eta ikaskuntza eduki espezifiko bihurtzea. Baina, horretarako, beharrezkoa da erabakiak hartzeko prozesu bati jarraitzea. Lehen urratsa *Hezkuntza konpetentzia orokorrak* identifikatzea izango da.

Hezkuntzaren xedeen lorpena are gehiago bermatuko da –derrigorrezko eskolaldian– Hezkuntza konpetentzia orokor hauek zenbat eta gehiago garatu:

- Pentsatzen eta ikasten ikasi
- Komunikatzen ikasi
- Elkarrekin bizitzen ikasi
- Norbera izaten ikasi
- Egiten eta ekiten ikasi

Arlo horietako bakoitzak hezkuntzaren helburuei zer ekarpen egiten dioten aztertuta, Hezkuntza konpetentzia orokorrak zehaztu ahal izango dira. Hori da curriculumeko arloak zehazteko aurretiazko urratsa.





Konpetentzia metadiziplinarrak, diziplinartekoak eta diziplina baitakoak

Curriculum arloak ezarritako jakintza arloen inguruan antolatzen direnez (hau da, materia edo diziplina zientifikoetan), beharrezkoa izango da konpetentziak berrikustea. Horretarako, konpetentzia horietako bakoitza menderatzeko beharrezko kontzeptuzko edukiak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak zein diren aztertuko da, eta, ondoren, eduki horiek zer diziplinatakoak diren identifikatuko da.

Hezkuntza konpetentzia orokorrak aztertu ondoren ikusiko dugunez, izaera globalak ez du uzten konpetentzia bakoitzak diziplina akademikoarekin duen lotura zuzena ezartzen, alderantziz baizik; gehienek diziplina bati zuzenean ez dagozkion jakintzen, konpetentzien eta jarreraren ezagutza eskatzen dute. Hau da, *metadiziplinarrak* dira. Beste eduki batzuk, erlazioa duten bi diziplinaren edo gehiagoren mende daude, hau da, *diziplinarteko* izaera duten ezagutzak dira; zuzenean diziplina baten mende dauden eduki espezifikoak ere identifika ditzakegu, *diziplina baitakoak*.

Hezkuntza konpetentzien garapenaren zerbitzura dauden diziplina arloak

Diziplina arloak elkarren hurbileko eta osagarriak diren diziplina anitzetatik eratorritako kontzeptuzko edukien, prozedurazkoen eta jarrerazkoen multzo moduan osatu dira; konpetentziak lortzeko bitarteko moduan aukeratu dira. Horrela defini ditzakegu arloak, ez izena ematen dion diziplina moduan, baizik eta Hezkuntzarako konpetentzia orokorrak lortzeko beharrezko eduki multzo moduan. Diziplina baten inguruan, diziplina horretako konpetentzia horiek lortzeko garrantzitsuak diren edukiak biltzen dira, baita hurbileko beste diziplina batzuetako edukiak ere.

Horrela bada, hau esan ahal izango dugu: Matematika arloa, edo Hizkuntza arloa ez dira Matematika edo Hizkuntza, baizik eta Hezkuntzaren xedeetan eta Hezkuntzarako konpetentzia orokorren garapenean definitutako helburuak menderatzen lagunduko duten matematikako edo hizkuntzako helburuen eta antzeko beste diziplina batzuetako helburuen multzoa.

Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna

Hezkuntzaren xedeetatik Diziplina arloetarainoko deribazio eta espezifikazio prozesua “Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna” aukeratzeko erreferentzia esparrua da. Bertan, Euskal Herrian derrigorrezko irakaskuntza bukatuko duten ikasleek partekatzea nahi ditugun oinarrizko elementuak definituko dira, bai Hezkuntza Konpetentzia Orokorrei dagokienez, bai euskal kultura espezifikoari eta unibertsalari dagokionez.



2.- HEZKUNTZAREN XEDEAK

Gure ustez, hezkuntza prozesuaren xedea gizakia gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik gaitasun gehien garatzea da. Ikuspegi horretan oinarrituta, hezkuntzaren xedeak (osotasuna bizitzan eta heldutasuna) adierazten duten irizpideak zenbateraino bete diren baldintzatuta daude, gizabanako gisa garatutako konpetentzien araberakoak baitira, bai eta gizartea eta natura garatzeko eta hobetzeko integratzeko, identifikatzeko eta laguntzeko mailaren araberakoak ere.

Hezkuntzaren xedeei buruzko ikuspegi horrek, onartua den neurrian, orientagarri diren helburu ideak adierazten ditu oso orokorrean bada ere, eta, zentzua ematen diete irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei eta, oro har, bizitzari. Oso abstraktua eta orokorra denez, gerta liteke ikuspegia nahiko onartua izatea, baina gero eta desberdintasun gehiago sortuko dira, ziur asko, ideia honi buruz dugun interpretazioa zehazterakoan: “pertsonaren gaitasunen erabateko garapena, eta gizartearen eta naturaren garapena eta hobekuntza”. Gai unibertsalak dira, baina gai horiek baloratzeko eta zehazteko zama historikoa eta kulturala handia da.

Hezkuntzaren xedeak oinarritzeko aipatzen diren iturrien artean, gizakiaren izaera, gizartearen izaera eta ezagutzaren izaera daude. Argi dago gai konplexua dela, eta horri erantzutea galdera hauekin lotuta dagoela: Zein dira eta nola interpretatzen dira giza premiak, bai oinarrizkoak, bai kulturalak, eta etorkizuneko eskaera sozio-kulturalak, munduan eta Euskal Herrian? Zein da lehentasunezko balioen eskala? Zein dira giza eskubide unibertsalak eta lege aginduak? Zein da giza perfekzioaren eta prestakuntzaren ideala? Zein da giza izaerari, gizabanakoaren eta gizartearen arteko harremanari eta askatasunaren eta autoritatearen arteko harremanari buruzko mundu ikuskera? Zein dira hezkuntza paradigmei buruzko sinesmenak eta itxaropenak: eredu teknologikoa, humanista, akademikoa, sozio-kritikoa? Galdera horiek eta horiei gehitu dakizkien beste batzuk elkarri uztartuta daude, eta premiek, interesek, balioek, eskubideek eta aginduek eta mundu ikuskerek elkarreraginean dauden eta etengabe zalantzan jartzen diren osotasun bat osatzen dute.

Jarraian, hezkuntzaren xedeen proposamena lehen aipatutako gaien azterketan eta diagnostikoan oinarritzeko asmorik gabe, bizitza osorako hezkuntzaren xedeetara egokitutako proposamena aurkezten dugu, derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren oinarria izan dadin.

Gure ustez, hezkuntzaren xedea da gizakiak goren mailako garapena lortzea gizabanako gizartekide eta izadikide den aldetik. Pertsona bakoitzak subjektibotasunaz eta autonomiaz duen kontzientzia gizarte bakoitzaren hizkuntzak, kulturak eta abarrek baldintzatutako elementuen arabera garatzen da. Ez dago gizabanakorik gizarterik gabe. Baina, era berean, gizabanakoa eta gizartea oso lotuta daude naturarekin, giza naturarekin; natura, inguratzen gaituen esparru ekologikoa den heinean. Gure naturak dimentsio materiala, kosmikoa du, baina baita psikikoa eta espirituala ere. Gure izaera fisiko-kimikoa, kosmikoa eta lurtarra da, eta guztiok giza espezieko kide gara. Gizabanakoa gizarte-an egiten da, baina, era berean, gizartea inguru jakin batean eraikitzen eta eraberritzen da, gizaba-



nakoen arteko elkarreraginari esker. Gizabanakoaren eta gizartearen jokaera nagusiak naturan oinarrituta daude, baina modu berean gizabanakoak eta gizarteak natura eta giza espeziea aldatu egiten dute. Gizabanakoaren, gizartearen eta naturaren arteko harremanak sistemikoak dira, eta gainjarri eta osatu egiten dira. Agian, horregatik da hain zaila muga zehatzak jartzea, batez ere, gizabanakoarekin, gizartearekin eta naturarekin lotutako ezagutzen artean.



GIZABANAKOA: Norberaren errealizazioa eta identitatea

Gizabanako bilakatzea, beste batzuekin batera bere biografia eraikitzen duen subjektu autonomo gisa identifikatzea da, bere ekintzak eta bizitzaren zentzua bideratzen duten irizpideez eta balioez kontziente eta bere buruarekin eta gainerakoekin kritiko eta arduratsu izanda, garapen pertsonala, gizartearen garapena eta naturaren oreka lortzeko.

Hezkuntzarako ezinbestekoak eta beharrezkoak diren kultur edukiak osatu gabe geratzen dira subjektuak ez badu lortzen berreraikitzea gizarteratzearen eta transmititzearen bidezko bitartekaritza funtzioak, deszentrazio eta hausnarketa kritikoko prozesu baten bidez. Hezkuntzaren ezaugarri nagusiak gizarteratze prozesuen eta kultur edukien azterketa kritikoa izan beharko luke, prozesu horiek etengabe eguneratu behar dituzten gizabanakoek eta taldeek garapen kontziente eta autonomia bultzatzeko. Baina, era berean, autonomia eta norberaren identitatea ez dira eraikitzen testuingururik gabeko arrazionaltasun irizpide abstraktuei jarraituz, baizik eta testuinguru historiko eta kultural baten baitan; eta testuinguru horren elementuetako batzuk euskal kulturaren ekarpen zehatzak dira. Helburua honako hau da: gizabanako bakoitzak modu autonomoan eraikitzea bere biografia, eskura dituen kultur erreferente guztiekin.



GIZARTEA: Euskal identitate soziala eta unibertuala

Euskaldun identifikatzea da, eremu kulturantzean; euskara eta euskal kultura bai eta erreferentziako eta berezko gainerako hizkuntzak eta kulturak onuragarritzat hartuz, nork bere identitatea modu inklusiboan eraikitzeke identitate anitzetan oinarrituta eta desberdintasunekin begirunezkoa eta bateragarria den erreferentzia eremu komuna eraikiaz, bizikidetza baketsua bideratze aldera.

Elkarbizitzarako eredu proposatzen dugu kultur integrazio inklusiboaren bidea; hau da, batasuna eta aniztasuna uztartzen dituen bidea: batasuna, Euskal Herrian elkarrekin bizi garen kultur talde guztien ondare komuntzat euskara eta euskal kultura hartuta, zabala eta etengabe eraberritzen dena; eta aniztasuna, komunitate bakoitzaren nortasuna errespetatzeko, ezagutzeko eta balioesteko, kulturarteko bideak erabiltzen ditugulako. Euskal Herriaren eta munduaren kultur ondarearen oinarritzko elementutzat ditugunak aukeratzean, erreferentzia eremu komuna eraikitzen dugu.

Euskal ikasleek eta, oro har, gizarteak kultur ondare hori bereganatzen eta partekatzen duten heinean, bizikidetzarako oinarria sendotzen ariko gara. Oinarritzko ideia honako hau da: euskaldun sentitzeak, espainiarra edo frantziarra sentitzeak bezalaxe, ez du izan behar beste identitate batzuen bazterrazalea. Gure ustez, euskararen eta euskal kulturaren inguruan egituratutako erreferentzia komun eta partekatuaren barruan, pertsona bakoitzak eraiki behar du bere identitate propioa, indibidualizazio prozesu baten bidez, eta, prozesu horretan, hainbat identitate aukeren arteko lehentasunak aukeratuko finkatuko du.

NATURA: Nortasun kosmikoa eta lurtarra

Kosmoseko eta lurreko kide gisa identifikatzea da, bizidun eta giza espezieko kide gisa; nork bere natur jatorria ezagutzeko, gizaki guztion ezaugarri komuna dena eta ekosistema osasuntsuari eusteko ardura izateko.

Gizakia zer den ulertzeko eta galdera horri erantzuteke, ezinbestekoa da gure izateak modu inklusiboan integratzea: aldi berean baikara izaki materialak, bizidunak, lurtarrak eta kosmikoak. Gure natur jatorria, materia oreana bezala, fisiko-kimikoa da. Izaki bizidunak gara, landareak eta animaliak bezala. Giza espezieko kide gara eta gizakiarekin lotutako gauzak ez dira gugandik kanpotikoak. Lurrean eta kosmosean bizi gara, eta gure etorkizuna horrekin lotuta dago, transzendentziarako gaitasuna dugun izakiak gara.


Bestalde, gero eta argiago dago bizi kalitatea –bai eta gizakiak eta gizarteak denbora luzean irautea ere– natura errespetatzearen eta kontserbatzearen mende dagoela, eta ingurumenaren degradazioak gure degradazioa dakarrela.

Bizitza osorako hezkuntzaren xedeak, orokorrak direnez, ez dute bere horretan zehazten derrigorrezko eskolaldian irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuek jarraitu beharreko urratsak. Aipatutako xedeak lagungarriak dira nondik norakoak finkatzeko eta bizitza osoko gure jardunei zentzua emateko. Hezkuntza xede horiek, nahiz eta derrigorrezko eskolaldian erreferentziatzat hartzeko baliagarriak eta kontuan hartzekoak izan, prestaketa aldi bat behar dute bete ahal izateko.



Gure ustez, derrigorrezko hezkuntzaren funtzioa gazteria bizitzarako prestatzea da, hau da, hezkuntzaren xedeak bete ahal izateko prestatzea. Zein da ezinbesteko ekipamendua gazte batek bizi ibilbideari edo curriculumari modu egokian ekiteko eta hezkuntzaren xedeak betetzeko?

Euskal Curriculumaren proposamenaren arabera, gazte batek bizitzarako behar duen guztia eta behar bezalako prestakuntza izango du, baldin eta pentsatzeko eta ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, norbera izateko eta egiteko eta ekiteko gai bada. Gainera, kompetentzia horiei “hezkuntza kompetentzia orokorrak” izena jarri diegu, eta “diziplina arloen” bidez eskuratzen dira; horrenbestez, Hizkuntza, Matematika, Natur Zientziak eta gainerako arloek “hezkuntza kompetentzia orokorrak” eta “hezkuntzaren xedeak” eskuratzen laguntzen dute. Hori guztia irudi honetan islatzen da:





3.- HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRAK

Etorkizunera begira aurrera egin nahi duen gizarte batek gizarteko kide guztiek modu aktiboan eta konpromisoz parte hartzeko gai izatea behar du, konpetentzia horiek guztiak ahalik gehien garatuaz. Horrenbestez, hezkuntza sistemaren xedeak pertsonak dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) eraginkortasunez *jarduteko* trebatzera bideratu behar dira. Bizitzaren eremuetan jarduteak prozedurak menperatzea esan nahi du, eta, horretarako, ezinbestekoa da metodo zientifikoa erabiltzen duen prozeduraren beraren ezagutza izatea, bai eta jakintzaren eremu bateko kontzeptuena ere. Jarduera horrek banakoa izan beharko luke; hau da, balio etiko edo moralen araberakoa izan beharko luke. Beraz, giza jarduera orok, aldi berean eta ezinbestean, prozedurak, ezagutzak eta jarrerak erabiltzea eragiten du.

Ikuspegi horri jarraiki, curriculuma antolatzeko ardatzek ez dute izan behar kontzeptuzko “jakintza”k, pertsonaren dimentsio guztietan jarduteko behar diren konpetentziak baizik. Konpetentziak azpimarratuaz, hezkuntza jarduera, ezagutza, egoera praktikotetan eta testuinguru zehatzetan erabiltzera bideratu behar dela nabarmendu nahi dugu; ezagutza hori, jarduteko benetako baliabidea izate aldera. Konpetentzia, jardunari lotuta dago beraz, dinamikoa da.

Ezagutzen “erabilera” azpimarratzeak ez du esan nahi “ezagutzak” gutxiesten direnik –praktikak ere ez baitu teoria baztertzen–, baizik eta ezagutza eta erabilera osagarriak direla. Argi dago jarduerak eraginkorrak direla praktikari buruz hausnartzeko gai garenean, hau da, esperientziaren bidez barneratutako ezagutza –batez ere, zientziak emandako ezagutza– modu kontzientean erabiltzeko gai garenean.

Beraz, gure ustez, hezkuntza konpetentzien lortzeak lotuta egon behar dute balioekin, prozedura trebetasunekin eta ezagutza kontzeptualekin; baina ezagutza, trebetasun eta jarrera horiek konpetentziak izateko, jarduerak izan beharko dute.

3.1.- Oinarrizko konpetentzia giltzak derrigorrezko eskolaldian Europako eremuan:

Eurydice-k egindako dokumentuan (2002)⁸, Europar Batasuneko estatu kideen curriculumak berrikusten dira eta derrigorrezko hezkuntza orokorrean konpetentziak garatzeko moduak aipatzen dira, konpetentzia giltzen definizioari eta identifikazioari buruzko informazioa eskaintze aldera. Azterketaren ondorioetan bi gauza egiaztatzen dira. Alde batetik, herrialde guztiek “konpetentzien garapenari buruzko erreferentzia inplizituak edo esplizituak dituzte”, eta hiru ikuspegi identifikatzen dituzte: konpetentziak modu inplizituan lantzen dituztenak, “konpetentzien” garapenaren erreferentzia esplizitua egiten dutenak eta “oinarrizko edo konpetentzia giltzen” erreferentzia esplizitua egiten dutenak. Une hartan aztertutako herrialde guztiek konpetentziak edo konpetentzia giltzak aipatzen zituzten curriculumean, edo aipatzeko bidean ziren.

Beste alde batetik, argi geratzen da “konpetentziei lotutako ezaugarri eta terminologia ugari daudela”. Gehien erabilitako hitza “konpetentzia giltza” da, baina beste hauek ere erabili dituzte: konpetentzia ata-



laseak, xede kompetentziak, ezinbesteko kompetentziak, oinarrizko kompetentziak, kompetentzia orokorrek edo zeharkako kompetentziak... Dena dela, "kompetentzia giltza" erabiltzea aholkatzen da, edo, bestela, horren baliokidea den beste bat, betiere, definizio honekin bat egiten badu: "Gizabanako guztiak gizarteko kide aktibo gisara bizi osotasunez bizitzeko aukera ematen duten ezagutza, trebetasun eta jarrera multzoa". Erreferentziatzen hartzen den ikuspegia honako hau da: ikasleak prest egotea derrigorrezko eskolaldia burututakoan, eskolatik kanpoko testuinguruetan eraginkortasunez jarduteko.

Lehenago adierazi dugunez, Europako herrialdeetako joera nagusia curriculumean kompetentziak aipatzea da, baina, azterketan aipatzen denez, badaude galdera batzuk oraindik behar bezala erantzun gabe:

- Diziplina jakin bat irakastean, zenbateko garrantzia izan behar du kompetentzia orokorrek edo zeharkako kompetentziak barneratzeak? Eta zenbatekoa diziplina baitako kompetentziak barneratzeak?
- Irakats al daitezke kompetentzia orokorrek aparteko diziplina moduan, edo ikasgaietan integratu behar dira?
- Nola irakatsi behar dira diziplinari dagozkion ezagutzak: berez dituzten balioetan oinarrituta edo transferitu daitezkeen kompetentzia orokorrek garatzeko baliabidetzat bakarrik hartuta?

Logikoa da galdera horiek irekiak izatea, orain arte hezkuntza sistemen curriculumak akademizismoan oinarritutako hezkuntza ereduen mende egon baitira. Murrizketa ulergarria da, hezkuntzaren *benetako* helburuak unibertsitaterako bidean dauden mailak gainditzean oinarritu baitira. Ikuspegia aldatutakoan eta hezkuntzaren xedeak zabaldukoan, normala da behar bezala ez jakitea bizi osoan sortu daitezkeen arazoak (pertsonalak, pertsonen artekoak, sozialak, profesionalak eta naturarekiko harremanetakoak) konpontzeko prestatu behar gaituen hezkuntzak nolakoa izan behar duen. Egia da curriculumak diziplina edo diziplina arloka antolatzea ez dela konponbide egokia izan, eta ez dela planteamendu nahikoa izan helburu horiek guztiak betetzeko, baina gaur egun ez dirudi bideragarria denik diziplinen edukiak eta curriculumak aspaldiko diziplina arloak kontuan hartu gabe antolatzea.

Curriculumak kompetentzien arabera osatzea koherenteagoa da gaur egungo hezkuntza xedeak medio, baina ez du arazoa guztiz konpontzen, ez baitago kompetentziak eta diziplina arloak integratzeari buruzko esperientzia nahikorik, eta, gainera, ez da erraza bizitzarako ezinbestekoak, oinarrizkoak eta giltza diren kompetentziak identifikatzea. Horri guztiari kompetentziak modu koherentean eta esanguratsuan formulatzeko zailtasunak gehitzen zaizkio, osotasun bat duten giza jarduerak diseinatuz, hau da, trebetasunekin, ezagutzekin eta jarrerekin lotutako edukiei dagozkien jarduerak bereiziz eta lotuz. Argi dago curriculumaren ohiko formulazioak, kontzeptuzko ezagutzetan oinarritutakoak, ibilbide luzea duela eta formulazio errazagoa duela, baina diziplinei buruzko ezagutzak barneratzeko bakarrik balio du, ez bizitzarako prestatzeko hezkuntza planteamendu zabalago baterako.

Euskal Curriculumerako egindako proposamenean, diziplina arloen arabeko antolaketa eta kompetentzien arabeko antolaketa osagarriak izatea nahi dugu. Aukeratutako eredu kurrikularren logikaren arabera, diziplina arloak ez dira izena ematen dioten diziplinarako ezagutza aipagarrien multzoa, baizik



eta diziplina horretatik edo horiekin zerikusia dutenetatik aukeratutako kompetentzia eta eduki multzoa, hezkuntzaren xedeak lortzeko eta horiek kompetentzia orokorretan garatzeko gaitasuna duten neurrian. Horrenbestez, diziplina arlo guztiak arlo horren inguruan aukeratutako eta egituratutako diziplina baitako, diziplinarteko eta edukien metadiziplinarren arabera definituko dira, hezkuntza xedeetan definitutako kompetentziak lortzeko egindako ekarpenaren arabera.

Ikuspegi horri jarraiki, lehen egindako galderei erantzuna ematen diegu:

- Diziplina jakin bat irakastean, zenbateko garrantzia izan behar du kompetentzia orokorrak edo zeharkako kompetentziak barneratzeak? Eta zenbatekoa diziplinei dagozkien kompetentziak barneratzeak?

Ikasgai batean kompetentzia orokorrak edo zeharkako kompetentziak eta diziplina jakin bati dagozkion kompetentziak barneratzeak duen garrantziak hezkuntzaren xedeak lortzeko zuzenean egindako ekarpenaren arabera izan beharko luke, helburua pertsonen dimentsio guztietan (gizabanako, gizartekide eta izadikide) eraginkortasunez jarduteko gai den pertsona lortzea baita.

- Irakats al daitezke kompetentzia orokorrak aparteko irakasgai moduan, edo ikasgaietan integratu behar dira?

Kompetentzia orokorrak *bereizita* irakats daitezke, baina, kompetentzia orokorrak eskolan *ikasteko*, diziplinetan integratu behar dira. Zenbat eta egoera gehiagotan, eduki gehiagoz eta maila gehiagotan irakatsi, orduan eta handiagoa izango da kompetentzia orokorrak transferitzeko aukera.

- Nola irakatsi behar dira diziplinari dagozkion ezagutzak: berez dituzten balioetan oinarrituta edo transferitu daitezkeen kompetentzia orokorrak garatzeko baliabidetzat bakarrik hartuta?

Diziplinek zientziaren arlotik landuta bakarrik dute zentzua. Ezagutzaren baitan dira eraikitzaileak, ez hezkuntzaren baitan. Arazoa honetan datza: diziplinak dira gaur egun ditugun euskarririk egonkorrenak edo fidagarrienak. Baina benetan sinetsita bagaude hezkuntza sistemaren funtzioa bizitzarako prestatzea dela, irakaskuntzaren edukiak horretarako balio dutenean da baliagarria. Horren ondorioz, oinarrizko irizpide garrantzitsuena xedeak lortzen laguntzea da.

3.2.- kompetentzia orokorrak Euskal Herriko eta Europako unibertsitateetan:

Bolognako Deklarazioak (1999) Europan goi hezkuntza koherente, bateragarri eta lehiatsurako espazio bat sortzea aldarrikatzen du, Europako eta beste kontinente batzuetako ikasleentzat erakargarria izan dadin. Euskal Herrian eta, oro har, Europan dauden unibertsitateetan Europako hezkuntza ministroek zehaztutako lan ildoak egokitzen ari dira –2010erako indarrean egon behar dute–.

Lan ildo bat “erraz ezagutu eta erkatzeko moduko titulazio sistema ezartzea” da. **“Tuning” proiektua**, Deustuko Unibertsitatea (Bilbo) eta Groningeneko unibertsitatea (Herbehereak) buru dituela, erre-



ferentzia da Europako unibertsitateentzat tituluak eta ikasketa planak berritzeko, eta kompetentzien sistema proposatzen du tituluak eta ikasketa planen helburuak deskribatzerakoan hizkuntza komuna izateko, bai eta ikasleen emaitzen ebaluaziorako erreferentzia izateko ere. Hain zuzen ere, proiektuak kompetentzia orokorretarako eta diziplina bakoitzari dagozkion kompetentziarako erreferentzia puntuak proposatzen ditu.

Planteamendu horren interesa unibertsitateetarako diseinu curricularren eta Euskal Curriculumaren artean dauden berdintasunetan eta sinergietan datza. Sinergi argiak daude Tuning proiektuan aipatutako “kompetentzia orokorren” eta Euskal Curriculumeko “hezkuntza kompetentzia orokorren” artean. Tuning proiektuan, hiru oinarrizko kompetentzia daude, eta, orotara, 30 kompetentzia.

Kompetentzia instrumentala	Pertsonarteko kompetentziak	Kompetentzia sistemikoak
1.- Azterketa eta sintesi kompetentzia	11.- Kritikatzeko eta nor bere burua kritikatzeko gaitasuna	19.- Ezagutzak praktikan aplikatzeko gaitasuna
2.- Antolatze eta planifikatzeko kompetentzia	12.- Talde lana	20.- Ikertze trebetasunak
3.- Oinarrizko ezagutza orokorrak	13.- Pertsonarteko gaitasunak	21.- Ikasteko gaitasuna
4.- Lanbidearen oinarrizko ezagutzak	14.- Diziplinarteko taldean lan egiteko gaitasuna	22.- Egoera berrietara egokitze gaitasuna
5.- Ahozko eta idatzizko komunikazioa norberaren hizkuntzan	15.- Beste arlo batzuetako adituekin komunikatzeko gaitasuna	23.- Ideia berriak sortzeko gaitasuna (sormena)
6.- Bigarren hizkuntzaren ezagutza	16.- Aniztasuna eta kultur aniztasuna balioestea	24.- Buruzagitza
7.- Ordenagailua erabiltzeko oinarrizko trebetasunak	17.- Nazioarteko testuinguruan lan egiteko trebetasuna	25.- Beste herrialde batzuetako kulturak eta ohiturak ezagutzea
8.- Informazioa kudeatzeko trebetasunak	18.- Konpromiso etikoa	26.- Modu autonomoan lan egiteko trebetasuna
9.- Arazoak konpontzea		27.- Proiektuen diseinua eta kudeaketa
10.- Erabakiak hartzea		28.- Ekimena eta ekiteko izpiritua
		29.- Kalitateaz kezkatzea
		30.- Lorpenerako motibazioa

Euskal Curriculumean (aurrerago ikusiko den moduan), bost kompetentzia orokor eta, orotara, 29 kompetentzia sailkatu dira. Horien artean aldeak daude, baina puntu komunak dituzte, eta bi planteamenduek elkar indartzen dute.

3.3.- Hezkuntza kompetentzia orokorrak Euskal Curriculumean

Euskal Curriculumean, garrantzi handia ematen diogu kompetentzia orokorrak –“hezkuntza kompetentzia orokor” izenekoak– barneratzeari, gure ustez hezkuntzaren xedeak lortzea horren menpe dagoelako, eta kompetentzia horiek gabe ezinezkoa delako bizitza osorako hezkuntzarako oinarriak ezartzea. Hori derrigorrezko hezkuntza orokorren oinarrizko funtzioetako bat da. Bestalde, gure ustez, hezkuntzaren erronka handienetako bat hezkuntza kompetentzia orokorren eta diziplina arloei dagoz-



kien konpetentzien arteko integrazioa lortzea da. Ez du zentzurik konpetentzia horiek bereizita planteatzeak. Izan ere, diziplina arloen ezagutzek ez dute berezko baliorik, hezkuntzaren xedeak betetzen laguntzen duten heinean baitira baliagarriak, eta hezkuntza konpetentzia orokorrek ere ez dute berezko baliorik, diziplina arloetatik aparte ez baitituzte hezkuntzaren xedeak betetzen.

Gure ustez, “hezkuntza konpetentzia orokorrak” zuzenean diziplina arloen eduki espezifikoen erreferentzia egiten ez duten konpetentziak dira, nahiz eta, hezkuntzaren ikuspegitik duten balioagatik, lotuta egon konpetentzia guztiekin (konpetentzia metadiziplinarrak), bai eta hainbat arlorekin (diziplinarteko konpetentziak) eta arlo jakin batekin ere (diziplina baitako konpetentziak); baina ez dute lotuta egon behar horiekin bakarrik. Hezkuntza konpetentzia orokorren ezaugarri nagusiak diziplina arloetan, eguneroko bizitzako egoeretan eta denboran zehar dituzten transferitze ahalmena eta funtzio ugariak dira.

Proposamen askotan saiatzen dira konpetentzia orokorrak zehazten. Eurydicek egindako dokumentuan, adibidez, honako hauek aipatzen dira: komunikazioa, arazoak konpontzea, arrazoitzea, buruzagitza, sormena, motibazioa, talde lana eta ikasteko gaitasuna. Beste erreferentzia iturri batzuek ere balio dute konpetentziak definitzeko; esate baterako, Europako Batzordeko Hezkuntza Batzordeak⁸ zehaztutakoak: jatorrizko hizkuntzaren bidezko komunikazioa; atzerriko hizkuntzaren bidezko komunikazioa; Informazio eta Komunikazio Teknologiak; kalkulua eta matematikako, zientziako eta teknologiako konpetentziak; enpresa espiritua; pertsonarteko eta gizalegeko konpetentziak; ikasten ikastea; kultura orokorra. Ikusi dugunez, Tuning proiektuan konpetentziak hiru mailatan sailkatuta daude: instrumentalak, pertsonartekoak eta sistemikoak. Gure proposamena egiteko, J. Delorsen⁹ zuzendaritzapean UNESCOri egindako txostenean oinarritu gara. Bertan, hezkuntzaren lau zutabe edo oinarri aurkezten dira: ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta izaten ikasi. Funtzio horiei guztiei komunikatzen ikastea gehitu diegu.


Gure ustez, hezkuntza konpetentzia orokorrak bost eremu horietan antolatuta egoteak ondo islatzen ditu hezkuntzaren funtsezko elementuak eta hezkuntza planteamendu horrekin koherentea izateko irakasleak –irakasle guztiek– bete beharreko funtzioak. Baina antolaketa eredu horrek, baliagarria izateko, hezkuntza konpetentzia orokor guztiak ordenatzeko baliagarria izan behar du. Konpetentzia guztiak ordenatzeko baliabide heuristikoa bat da, azken proposamenak koherentzia eta zentzua izate aldera, eta, gainera, ahalik osoena izan behar du hezkuntzaren helburuei dagokienez. Gainera, aurkezpenean erabilitako ordenak ez du aparteko asmorik edo lehentasunik, ez eta hierarkiarik ere: esate baterako, ikasten eta pentsatzen ikastea ez da beste arlo batzuei dagokien konpetentzien aurretikoa, ez eta garrantzitsuagoa ere.

Sailkapenak duen interesaz jabetuta, baina sailkapen honek eta antzekoek dituzten mugez ohartuta, hona hemen dokumentuan landuko dugun hezkuntza konpetentzia orokorren mapa.



1.- Pentsatzen eta ikasten ikasi:	<ul style="list-style-type: none"> 1.1.- Informazioaren interpretazioa: ulermenean oinarritutako pentsamendua. 1.2.- Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea 1.3.- Informazioaren ebaluazioa: pentsamendu kritikoa 1.4.- Erabakiak hartzea 1.5.- Arazoak konpontzea 1.6.- Baliabide kognitiboen erabilera
2.- Komunikatzen ikasi:	<ul style="list-style-type: none"> 2.1.- Ahozko hizkuntza 2.2.- Idatzizko hizkuntza 2.3.- Beste hizkuntza batzuk 2.4.- Gizarte komunikabideen baliabideak 2.5.- Informazio eta Komunikazio Teknologiak 2.6.- Kontzientzia sozio-komunikatiboa
3.- Elkarrekin bizitzen ikasi:	<ul style="list-style-type: none"> 3.1.- Pertsonarteko harremana 3.2.- Parte hartze demokratikoa 3.3.- Elkarlana eta talde lana 3.4.- Gizarte bizikidetzarako arauak 3.5.- Aniztasuna (generoa eta kultur aniztasuna) 3.6.- Arazoak konpontzea
4.- Norbera izaten ikasi:	<ul style="list-style-type: none"> 4.1.- Gorpuztasuna 4.2.- Norberaren kontrola eta oreka emozionala 4.3.- Nork bere buruaren estimua 4.4.- Autonomia 4.6.- Sentsibilitate estetikoak 4.6.- Integrazio pertsonala
5.- Egiten eta ekiten ikasi:	<ul style="list-style-type: none"> 5.1.- Fase analitikoak: informazioa hartzea eta gordetzea 5.2.- Sortze fasea: ideia berriak eta konponbideak lantzea 5.3.- Berritze fasea: ideiak gauzatzea 5.4.- Ebaluazio fasea: inpaktuaren ebaluazioa 5.5.- Ekite prozesuaren aplikazioa

Hezkuntza kompetentzia orokorren mapa hau bi modutan irakur daiteke: arlo bakoitza bakarrik hartuta edo arloak elkarri lotuta.



Arloka sailkatzeak hezkuntza kompetentzia orokorrei buruzko ideia orokor bat osatzen laguntzen du, baina ezinbestekoa da arloak sailkatzetik arloen arteko loturez kontzientziaztera pasatzea. Sailkatzearen eta elkarren arteko loturaren ideia izarraren irudian islatzen da, izarraren bost punteta-



ko bakoitzak kolore bat baitu, eta koloreak diluitu egiten dira, kolore bakar bateko espazio komuna osatuz.

Arloen arteko loturen elkarrekikotasuna diagrama honetan dago adierazita.

	Pentsatu eta ikasi				
Pentsatu eta ikasi		Komunikatu			
Komunikatu	X		Elkarrekin bizi		
Elkarrekin bizi	X	X		Izan	
Izan	X	X	X		Egin eta ekin
Egin eta ekin	X	X	X	X	

Diagrama modu askotan irakur daiteke. Esate baterako, uler daiteke pentsamenduak komunikazioa baldintzatzen duela, bai eta komunikazioak pentsamendua baldintzatzen duela ere; pentsamenduaren eta komunikazioaren gaitasunek elkarrekin dugun bizitzaren kompetentziak baldintzatzen dituzte, eta, era berean, elkarrekin bizi gabe, pentsamendurako eta komunikaziorako aukerak murriztuta daude; pentsamenduaren, komunikazioaren eta elkarrekin bizitzearen kompetentziek ikastearen kompetentzia baldintzatzen dute, baina ikastearen kompetentziek gainerako kompetentziak ere baldintzatzen dituzte. Hezkuntza kompetentzia orokorren arloen arteko lotura ulertuta, kompetentzia horiek gainjarri eta osatu egiten direla ulertzen da.

Jakin badakigu guk egindako proposamenak aldaketa sakona dakarrela “zertarako eta zer irakatsi eta ebaluatu” auzian, bai eta “nola irakatsi eta ebaluatu” auzian ere. Gure planteamenduaren arabera, irakasle guztiak hezitzaileak dira, eta haien funtzioa ikasleak bizitzaren eremu guztietan modu egokian jarduteko prestatzea da. Irakasleen funtzioa ez da “haien” diziplina irakastea bakarrik; gainerako irakasleekin batera, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, egiten eta ekiten ere irakatsi behar baitute. Horrek guztiak hezkuntzari eta hezkuntzaren irakaskuntzari buruzko ikuspegi aldaketa dakar, eta pentsamenduan eta irakasleen jardunean aldaketak eta doitzeak behar ditu. Gai konplexuak eta zailak dira, eta planteamendu berriak beharko dira, bai irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan, bai curriculumeko diziplinetan.

Laburbilduz:

- 1) Euskal Curriculumaren proposamena kompetentzien arabera dago formulatuta, eta derrigorrezko eskolaldirako, Lanbide Heziketarako eta unibertsitateko goi ikasketetarako Europako herrialde gehienek curriculumen ildo beretik doa.
- 2) Garrantzi handia eman zaio “hezkuntza kompetentzia orokorrak” barneratzeari; izan ere, barneratzea hezkuntzaren helburuekin eta pertsona bat dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta



izadikidea) garatzearekin estuki lotuta dago, eta transferitzeko, funtzio ugari izateko eta asko irauteko aukera ematen du.

- 3) Proposamen honen funtzio nagusia “diziplina arloak” formulatzeko oinarri eta erreferentzia izatea da. Ez du zentzurik diziplina arloak “hezkuntza kompetentzia orokorretatik” bereizteak. Proposamen hau baliagarria izateko, diziplina arloetara transferitu behar da. Euskal Curriculumaren erronka handienetako bat proposamen integratua egitea da.
- 4) “Hezkuntza kompetentzia orokorrak” elkarrekin lotuta daude; beraz, “diziplina arloek” “hezkuntza kompetentzia orokorren” eremu guztiak bere baitan hartu nahi dituzte. Horrek ez du esan nahi diziplina arlo bakoitzak eremu jakin bat azpimarratzen ez duenik.
- 5) Curriculumean aipatutako hezkuntzaren helburuen eta hezkuntza kompetentzia orokorren gaineko ikuspegi aldaketak hezkuntzaren jardunean gauzatzeko baldintza batzuk behar dira. Baldintza horien artean garrantzitsuenak hauek dira: irakasleei hasierako eta etengabeko prestakuntza ematea, eta curriculumaren planteamenduarekin koherenteak diren material kurrikularrak lantzea.



4.- CURRICULUM ARLOAK

Curriculumaren aukeraketari eta antolaketari erantzutea da irakaskuntzaren arlorik zailenetakoa eta gatazkatsuenetakoa. J. Gimeno dioenez (1992:171-72)¹⁰: *“Irakaskuntzaren denbora zer edukik bete behar duen erabakitzea zer funtzio betetzea nahi dugun argitzea da, norbanakoekin, jasotako kultura-rekin, gure gizartearekin eta lortu nahi dugun gizartearekin lotuta. Galdera horien aurrean ikuspegi bakarra ez dagoenez, irakaskuntzako edukien zehaztapenaren inguruan izan da eskolatzearen eta curriculum pentsamenduaren historiako eztabaida garrantzitsuena”*. Egoera horren jakitun izanik, uste dugu gure curriculum proposamena ikerketa, ebaluazio eta berrikuste prozesu jarraitu moduan ulertu behar dela. Gure ingurune hurbilenean gaiak duen egoera azalduko dugu labur, baita Euskal Curriculumerako egindako aukeraketa ere.

4.1.- Curriculumaren antolaketa gure inguruko herrialdeetan

Europako herrialdeetako eta munduko curriculumak aztertuz gero, diziplina arloen arabera antolatzen direla ikusiko dugu. Bigarren Hezkuntzako ikasketa planetan, ohikoena diziplina arlo hauek sartzea da (aldaketak aldaketa): herrialde bakoitzaren Hizkuntza eta Literatura, Atzerriko hizkuntza, Matematika, Historia eta Geografia (Gizarte Zientziak), Fisika, Kimika, Biologia (Natur Zientziak), Teknologia, Musika, Heziketa Artistikoa, Soin Hezkuntza eta Erljioa. Espainiako eta Frantziako Estatueto curriculum ofizialtan, adibidez, diziplina arlo hauek sartzen dira:

ESO Espainia-LOCE	ESO Anteproyecto LOE- Espainia	Collège Frantzia
1.- Biología y Geología	1.- Ciencias de la Naturaleza (Biología, Geología, Física, Química)	0) Competences instrumentales: la maîtrise des langages:
2.- Ciencias de la Naturaleza	2.- Educación Física	1.- Français
3.- Cultura Clásica	3.- Geografía e Historia	2.- Langues vivantes
4.- Educación Física	4.- Lengua castellana y Literatura	3.- Mathématiques
5.- Educación Plástica	5.- Lengua cooficial y Literatura	4.- TIC
6.- Ética	6.- Primera Lengua extranjera	5.- Arts
7.- Física y Química	7.- Segunda Lengua extranjera	6.- Education physique et sportive
8.- Geografía e Historia	8.- Matemáticas	A) Culture des humanités:
9.- Latín	9.- Educación para la ciudadanía	1.- Français
10.- Lengua Castellana y Literatura	10.- Educación plástica y visual	2.- Histoire et géographie
11.- Lengua y Literatura propia	11.- Música	3.- Langues vivantes
12.- Lengua extranjera	12.- Procesos tecnológicos e informáticos	4.- Enseignements artistiques
13.- Matemáticas	13.- Cultura clásica	5.- Langues anciennes
14.- Música	14.- Latín	B) Culture scientifique et technique:
15.- Tecnología		6.- Mathématiques
		7.- Sciences expérimentales
		8.- Technologie
		C) Disciplines transversales:
		9.- Education civique
		10.- Education physique et sportive



Diziplinak jakintza antolatzeko modu bat dira, eta antolaketa hori erabilgarria da ezagutza zientifikoa lortzeko (diziplina pentsamendua antolatzen laguntzen duten eta errealitatearen zati baten azterketa eta elkarreragina sustatzen duten gertaera, kontzeptu, arazo, metodo eta teknika multzo ordenatu moduan ulertuta). Hala ere, jakintza antolatzeko modu horrek ez du erabilgarritasun bera derrigorrezko eskolaldian, maila horretako hezkuntza funtzioa ez baita ezagutza zientifikoa jabetzera murrizten; ez da, gainera, modu egokiena adin horretako ikasleei esanguratsua gertatzeko egoki iruditzen zaizkigun ezagutzak. Diziplinek errealitatearen zatiak ematen dizkigute, bakoitzak bere ikuspegitik, eta horrek arrisku bat du: errealitatea zatikatzea, eta osotasunaren ikuspegia galtzea.

Zatiketa hori ez gertatzeko, ohikoa da egungo hezkuntza sistemetan jakintza “Diziplina arloka” banatzea derrigorrezko eskolaldian. “Diziplina arloak” beti, behin-behineko eraikuntzak dira, eta ikasketa helburu bera duten diziplinak integratzen edo biltzen saiatzen dira. Diziplina arloen funtzioa errealitatera hurbiltzen laguntzea da, gehiegizko zatiketaren ikuspegi sakabanatuegiari edo orokortasunaren gehiegizko nahasmenari ihes eginez.

Gure ikuspegitik, diziplinek eta diziplina arloek zentzua dute ikasleek horien bidez (eta ez euren kasa) hezkuntzaren xedeak edo funtzioak lortzeko tresna baliagarriak diren heinean. Adibidez, hezkuntzaren eginkizun nagusia belaunaldiz belaunaldi zientziek bildu dituzten ezagutzak iraunaraztea bada, curriculumaren edukiak zientzia eta ezagutza arlo horietan oinarritu beharko dira, eta **ikuspegi logozentrikoa** ezarriko da. Hezkuntzaren betebeharrak nagusia merkatuaren eskakizun ekonomikoari erantzuteko gai izango diren profesional trebeak prestatzea bada, orduan, **ikuspegi teknozentrikoa** ezarriko da. Kasu horretan, oso goiz sartuko dira espezialitateak Bigarren Hezkuntzan. Curriculumeko diziplinetan lanbide heziketara bideratutako izaera aplikatuko materia asko agertuko dira, eta, irakaskuntzan, helburuak lortzeko eraginkortasunera bideratutako paradigma teknologikoa nagusituko da. Ikasleen interesetan oinarritutako hezkuntzaren funtzio nagusia gaitasunak garatzea bada, orduan, **ikuspegi paidozentrikoa** nagusituko da. Kasu horretan, edukien lehentasuna bigarren maila batera igaroko da, eta ikasleen gaitasunen zerbitzura egongo dira. Baina hezkuntzaren funtzio nagusia gizarteratzea bada, eta ikaslea bere beharrei eta bizi den eta biziko den gizartearen beharrei erantzuteko prestatzea, **ikuspegi soziozentrikoa** ezarriko da. Ikuspegi hori eguneroko bizitzako arazoak ebazteko konpetentziak garatzen saiatuko da, eta, oro har, bizitzako beharrei ongi eta kritikoki erantzuten. Kasu horretan, edukiak egituratzeko ardatzak norbanakoaren eta gizartearen beharrak izango dira.

4.2.- Diziplina arloen proposamena euskal curriculumean

Euskal Curriculumean zaila da ikuspegi horien ekarpenak kontuan ez izatea. Pertsona bat norbanako, gizartekide eta izadikide moduan garatzeko, beharrezkoa da zientzien oinarriko ezagutzak eta prozedurak ikastea (ikuspegi logozentrikoa); beharrezkoa da lanerako eta ekintzaitzeta posturako konpetentziak garatzea (ikuspegi teknozentrikoa); ikasleen gaitasun guztiak ahalik gehien garatu behar dira (ikuspegi paidozentrikoa), baita eguneroko arazoak ebazteko eta gizartearen beharrei kritikoki erantzuteko konpetentziak ahalik gehien garatzea ere (ikuspegi soziozentrikoa).




Euskal Curriculumaren proposamenean, curriculuma diziplina arloen arabera antolatzea erabaki da. Hori al da aukerarik onena? Ba al daude aukera hobeak, eta hezkuntzaren helburuekin eta funtzioekin koherenteagoak direnak? Gai hori, zalantzarik gabe, oso eztabaidagarria eta eztabaidatua da. Badaude, noski, curriculuma antolatzeko beste modu batzuk, diziplina arloen arabera bezain koherenteak edo koherenteagoak izan daitezkeenak, baina alternatiba horiek zailtasun handia dute inplementatzeko. Hasierako heziketa (titulazioa) eta irakasleen aukeraketa eta esleipena diziplina arloen arabera izaten da; ikastegietako denbora (ordutegiak), sailak eta mintegiak diziplina arloen arabera antolatzen dira. Esan daiteke hezkuntza sistemak eta zerbitzuek diziplina arloen arabera funtzionatzen dutela. Zaila da curriculumaren antolaketa ardatza aldatzea aurrerago aipatutako baldintzak aldatzen ez badira (aldaketarekin bat etor daitezen).

Hau da Euskal Curriculumerako diziplina arloen proposamena:

- 1.- Hizkuntzak eta Literatura**
- 2.- Matematika**
- 3.- Teknologia**
- 4.- Musika eta Dantza**
- 5. Plastika**
- 6.- Soin Hezkuntza**
- 7.- Gizarte Zientziak**
- 8.- Mundu ikuskerak eta Erliijoak**
- 9.- Natur Zientziak eta Osasun Zientziak**
- 10.- Tutoretza eta Orientazioa**

Proposamen horrek Espainiako eta Frantziako Estatuetakoko curriculum ofizialen enborra eta haiekin bateragarria izan nahi du. Bestetik, irizpidea diziplina arloen izenak ahalik gutxien egokitzea izan bada ere (lehenago emandako arrazoi batzuek zirela eta), arloen oinarriko diziplinen edukiak sakon berrikusi ditugu, derrigorrezko eskolaldia amaitzen duten ikasleak bizitzaren ibilbideari baldintza onetan ekiteko prest egoteko eta baliabide asko izateko, eta, horrela, hezkuntzaren xedeak lortzeko.

Diziplina arloen proposamena (“Curriculum Diseinuaren” azalpenean adierazi dugun moduan), ezin da isolatuta ulertu; maila bat da, hezkuntzaren helburuetatik, hezkuntza kompetentzia orokorretatik, kompetentzia metadiziplinarretatik eta diziplinarteko kompetentzietatik eratorritako prozesuaren baitakoak. Beraz, diziplina arloetako bakoitzak hezkuntzaren helburu eta hezkuntza kompetentzia orokor guztiak biltzen ditu.



Diziplina arlo bakoitza atal hauen arabera garatzen da:

- Sarrera: arloaren definizioa eta hezkuntzaren helburuekin eta hezkuntza kompetentzia orokorrekin duen lotura.
- Arloko kompetentzia orokorrak
- Gai eta eduki multzoak: jarrerazkoak, kontzeptuzkoak, prozedurazkoak.
- Kompetentzia espezifikoak: kompetentzia orokorrekin eta gai multzoekin duen lotura, hezkuntzaren xedeak lortzeko duen garrantzia.
- Kompetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak

4.3.- Tutoretza eta Orientazio arloa

“Tutoretza eta Orientazioa” arloa gainerako diziplina arloek duten tratamendu bereko curriculum arlo moduan sartzen da. Hau da, Orientazioa eta Tutoretza arloaren helburu orokorrak definitzen dira, baita kontzeptuzko edukiak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak eta kompetentzia espezifikoak ere, horien ebaluazio irizpideekin batera. Gure ustez, Orientazioa eta Tutoretza prozesua (eta diziplina arloak) hertsiki lotuta daude hezkuntzaren helburuekin eta hezkuntza kompetentzia orokorrekin, eta horiek lortzearen zerbitzura daude. Denek laguntzen dute (arlo bakoitzak bere ikuspegi partikularretik) pertsonaren garapena lortzen, dimentsio indibidualean, sozialean eta naturalean, eta hezkuntza kompetentzia orokorrak lortzen (pentsatzen eta ikasten ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi). Ez da, beraz, heziketa soilik diziplina arloen funtzioa, eta hezkuntza Orientazioaren eta Tutoretzarena, guztiek baitute funtzio hezitzailea.



5.- EUSKAL CURRICULUM OINARRIZKOA ETA KOMUNA GIZARTERATZEKO ETA BALORATZEKO PROZEDURA

Curriculum onena zein den baloratzea oso konplexua da. Derrigorrezko eskolaldirako hezkuntza xedeak, hezkuntza konpetentzia orokorrak, ikaskuntzako edukiak, lortu beharreko konpetentziak eta ebaluazio irizpideek zein izan behar duten baloratzeko irizpideak aldatu egiten dira denboran, eta lekuetan, baita leku-denbora koordinatu berean ere. Aldaerak asko izan daitezke: gizakiaren eta gizartearen eredu perfektuaren eta beharren interpretazioa eta ezartzen diren lehentasunak, curriculum ereduari buruzko aukeraketa, ikastetxearen kultura pedagogikoa, etab. Curriculumaren aukeraketa ezin da, beraz, arrazionaltasun zientifikoan edo teknikoan oinarritu; arrazionaltasun praktikoan oinarritutako erabaki soziala da.

Hori horrela, elementu giltzarriak dira Euskal Curriculumuma baloratzeko interesatuen parte hartzea, erabakiak hartzeko prozedurak eta proposamenaren onarpen maila. Beraz, esan daiteke Euskal Curriculumaren balioa eta ezartzeko zilegitasuna baldintza horiek lortzearen mende egongo dela.

5.1.- Parte hartzeko eta parte hartzaileentzako irizpideak

	Familia	Irakasleak HE eta LH	Irakasleak BH	Ikasleak 16 eta 18	Adituak	Gizartea
Hezkuntzaren xedeak baloratzea	x	x	x	x	x	x
Hezkuntza konpetentzia orokorrak baloratzea	x	x	x	x	x	x
Curriculum arloetako jarrerak eta prozedurak baloratzea (transdiziplinarrak eta diziplina artekoak)		x	x		x	
Curriculum arloetako konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak baloratzea			x		x	

Hauek izan daitezke parte hartzaileak:


- Familia: Eskola Kontseiluetan eta Guraso elkarteetan familiak ordezkatzan dituztenak.
- Irakasleak: irakasle guztiak, bai Haur Hezkuntzakoak, bai Lehen Hezkuntzakoak eta bai Bigarren Hezkuntzakoak, bai maila pertsonalean, bai taldearen ordezkari moduan (sailak, mailak, zikloak, klaustroak, etab.), edo Irakasle elkarteak.
- Ikasleak: DBHko laugarren mailako ikasleen edo/eta 18 urteko ikasleen lagina (Batxilergoa, Erdi mailako edo Lan mundurako zikloak).



- Adituak: hezkuntza eta jakintza arloetan adituak direnen lagina.
- Gizartea: gizartean eta hezkuntzan eragiten duten erakundeak edota pertsonak.

5.2.- Erabakiak hartzeko prozedura

Alderatze eta baloratze prozesuaren aurretik, beharrezkoa izango da inplikaturako sektoreei proposamenaren nondik norakoa eta jarraitu beharreko metodologiaren berri ematea.



Informazio prozesuaren ondoren, bi fase aurreikusten dira proposamena alderatzeko eta baloratzeko:

- Lehen fasean, Euskal Curriculum osoa alderatu eta baloratuko da: xedeak, hezkuntza kompetentzia orokorrak eta curriculum arloak. Prozesu horren bidez, proposamenaren balorazio orokorra egingo da;
- Lehen faseko emaitzen balorazio orokor horren bidez, Euskal Curriculum oinarrizko eta komunaren proposamena zehaztu ahal izango da, eta berriz baloratuko da, Euskal Herriko ikastetxeek elkarrekin partitu nahi dugunari buruzko akordioa lortzeko, arrazoi indibidualek edota herri, erlijio, autonomia edo estatu jakin batekoa izateak eragindako desberdintasunen gainetik.

5.3.- Kronograma

Komenigarria litzateke proposamena alderatua, baloratua eta hitzartua izatea 2006ko urtarrilaren 31rako.

Azken oharra: hemen zirriborratutako prozedurak balio orientatzailea du; aldatu egin daiteke, proiektua sustatzen duten hezkuntza erakundearen akordioaren eta balorazioaren arabera.



BIBLIOGRAFIA

- ¹ MORIN, E. (2000): *Les sept savoirs nécessaires à l'éducation du futur*. Seuil, Paris.
- ² DELORS, J. (1999): *Hezkuntza: Altxor ezkutua*. XXI. menderako hezkuntzari buruz Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena. Unesco Etxea / Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- ³ UNESCOri egindako txostenaren (1999) eta Europako Batzordearen txostenaren (1995) egokitzapena.
- ⁴ BARANDIARAN, J.M. (1985); "Euskal Herria. Diapositiba bilduma". SEIE-GIE, Donostia.
- ⁵ EUSKO JAURLARITZA (2004): *Kulturaren Euskal Plana*. Kultura Saila, Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- ⁶ DELORS, J. (1999): *Hezkuntza: Altxor ezkutua*. XXI. menderako hezkuntzari buruz Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena. Unesco Etxea / Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- ⁷ OCDE (2000): *La medida de los conocimientos y destrezas de los alumnos. Un nuevo marco para la evaluación*. PISA proiektua. MEC/INCE, Secretaría General Técnica, Madril.
- ⁸ EURYDICE (2002): *Competencias clave. Un concepto en expansión dentro de la educación general obligatoria*. <http://www.eurydice.org>
- ⁹ EUROPAKO BATZORDEA (2002): *The key competencies in a knowledge-based economy: a first step towards selection, definition and description*. Directorate-General for Education and Culture.
- ¹⁰ DELORS, J. (1999): *Hezkuntza: Altxor ezkutua*. XXI. menderako hezkuntzari buruz Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena. Unesco Etxea / Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- ¹¹ GIMENO, J. (1992): *Comprender y transformar la enseñanza*. Morata, Madril.



ERANSKINA: GLOSATEGIA ETA ADIBIDEAK

1.- CURRICULUMA

- 1.1.- Euskal Curriculumuma
- 1.2.- Euskal Curriculumum Espezifikoa
- 1.3.- Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumum oinarrizkoa eta komuna

2.- HEZKUNTZA XEDEAK

3.- KONPETENTZIAK

- 3.1.- Definizio semantikoa eta egiturazkoa
- 3.2.- Hezkuntza Konpetentzia Orokorrak
- 3.3.- Arloko Konpetentzia Orokorrak
- 3.4.- Arloko Konpetentzia Espezifikoak

4.- DIZIPLINA ARLOAK ETA EDUKIAK

- 4.1.- Diziplina arloak
- 4.2.- Eduki multzoak
- 4.3.- Edukien tipologia

5.- EBALUAZIO IRIZPIDEAK



1.- CURRICULUMA

Curriculum hitza aipatzean, kultur ibilbideari eta ibilbide hori amaitzean lortu beharreko kompetentziei buruzko proposamenaz ari gara. Asmoak bi dira: pertsonen garapen osoa lortzea (gizabanako, gizarte-kide eta izadikide moduan); eta belaunaldi berriak gizarteratzea eta etengabe eraberritu eta eguneratuko den proiektu komun bat eraikitzea.

1.1.- Euskal Curriculumuma

“Euskal Curriculumuma” kultur prozesuen eta produktuen aukeraketa da guretzat (bai euskal espezifikoa, bai unibertsal), eta aukeraketa hori munduaren ikuspegi edo perspektiba partikular batetik egin da. Euskal Curriculumumaren helburua ez da mugatzen, beraz, euskal kultura espezifikoaren ekoizpentzat har daitekeenaren aukeraketara; helburua gizateria osoarena hartzea da, baina, betiere, begiramen eta hizkuntza partikular batetik.

1.2.- Euskal Curriculumum Espezifikoa

“Euskal Curriculumum Espezifikoa” deitzen diegu Euskal Herrian sortu edo errotu diren bertako edo jabetutako kultur adierazpenei.

1.3.- Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumum oinarrizkoa eta komuna:

“Euskal Curriculumum oinarrizkoa eta komuna” derrigorrezko eskolaldia amaitzean (16 urte) ikasle guztiek izan beharreko (curriculum komuna) jakintzak, trebetasunak eta jokabideak biltzen dituen kompetentzia multzoa da. Kompetentzia multzo hori ez da ikastetxeetan irakasten den guztia, Euskal Herrian eta munduan bizitzeko ezinbestekotzat hartzen denaren aukeraketa baino (oinarrizko curriculumuma). Euskal Herrian bizi garenok partekatu nahi dugun gutxieneko komuna da, arrazoi indibidualek edota herri, erlijio, autonomia edo estatu jakin batekoa izateak sortutako desberdintasunen gainetik.

2.- HEZKUNTZA XEDEAK

Hezkuntzaren xedeak pertsonak eta gizarteak hezkuntzaren bidez lortu nahi dituzten idealak, helmuga desiragarriak, helburuak dira. Ideal edo helburu horiek etorkizuna definitzen dute, gidatu egiten gaituzte, eta zentzua ematen diete **bizitza osorako** irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei. Hezkuntzaren helburu horien lorpena Hezkuntza Kompetentzia Orokorren garapenaren mende dago.



3.- KONPETENTZIAK

3.1.- Definizio semantikoa eta egiturazkoa

Termino hori hainbat modutan defini daiteke.

Definizio semantikoa: (Zer da?)

- Testuinguru jakin batean, lan bati bermeeekin aurre egiteko gaitasuna.

Kontuan izan behar da lanak mota askotakoak izan daitezkeela, eta arazoak ebaztea ere eska dezaketela; horregatik, honako hau esan daiteke:

- Testuinguru jakin batean, lan simple nahiz konplexu bati bermeeekin aurre egiteko gaitasuna.

Konpetentzia, beraz, ekintzarekin lotuta dago, eta zerbait dinamikoa da, eta ez estatikoa. Ez da, beraz, ekintza aktiboki garatzeko ezagutza jakintsua, edo jaso bai baina erabiltzen ez den ezagutza..

Konpetentzia beti dago lotuta lana planteatzen den testuinguruarekin, eta ezin da testuinguru horretatik kanpo ulertu. Pertsona batek ikasitako konpetentzia bat testuinguru berri batean erabiltzen duenean, konpetentziaren transferentzia izan dela esaten dugu. Transferentziak egiteak garapen kognitiboa handia adierazten du.

Egiturazko funtzioa (Zer zati ditu?)

Egiturari begiratuz gero, konpetentzia batek elementu hauek ditu: *operazioa* (buru ekintza) *objektu* baten gain (eskuarki "ezagutza" deitzen diogu) *helburu* jakin bat lortzeko.

Horregatik, konpetentzia batek honen moduko idazkera du:

Gatazka egoera bat adi-adi aztertzea, eta alternatibak baloratzea, horietako baten alde egiteko, arrazoiak erabiliz eta arduraz.

Konpetentzia horretan zenbait buru ekintza daude (aztertzea, alternatibak baloratzea eta erabakitzea) eta buruz eragiteko zenbait objektu (gatazka bat aztertzeko beharrezko kontzeptuak eta prozedurak, kontuan izan beharrezko alternatibak eta erabakia hartzeko jokoan sartzen diren elementuak), eta ekintza horrek erabaki arduratsua hartzeko helburua du (jarrera).

Konpetentziak orokorrak edo ez hain orokorrak izan daitezke, aipatutako buru ekintzen orokortasunaren eta eragin beharrezko objektuen hedaduraren arabera.

Adibideak

Izaera orokorreko konpetentzia: *Bitarteko adierazkorren bidez (ahozkoa, idatzia, artistikoa, teknologikoa, gorputzaren bidezkoa), norbere ideiak eta sentimenduak adieraztea, besteei komunikatzeko.*

Izaera zehatzagoko konpetentzia: *Albistegi bat prestatzea irratirako, herriko albistek ongi aukeratuz eta gidoi egoki bat prestatuz.*



Diseinu honetako helburu guztiak, orokortasun maila dena delakoa izanik ere, beti kompetentzia moduan adieraziko dira.

3.2.- Hezkuntza Kompetentzia Orokorrak

“Hezkuntza kompetentzia orokorrak” zuzenean diziplina arloen eduki espezifikoaren erreferentzia egiten ez duten kompetentziak dira, nahiz eta, hezkuntzaren ikuspegitik duten balioagatik, lotuta egon kompetentzia guztiekin (kompetentzia metadiziplinarrak), bai eta hainbat arloekin (diziplinarteko kompetentziak) eta arlo jakin batekin ere (diziplina baitako kompetentziak); baina ez dute lotuta egon behar horiekin bakarrik. Hezkuntza kompetentzia orokorrak proiektu hau jarraituko duten ikastetxeek landu beharreko kompetentzien mapa orokorra dira, eta, beraz, ikastetxeetan hezkuntza ardurak zuzenak dituzten haientzako guztientzako lan tresnarik oinarritzat dira. Proiektu honetan, hezkuntzaren xedeak garatzeko garrantzitsuak iruditzen zaizkigun kompetentzia guztiak sistemikoki deskribatzeko tresnatzat aukeratako esparruak modu orokorrean garatzen dituzten kompetentziak dira. Hezkuntza kompetentzia orokorren ezaugarriak hauek dira: transferitzeko gaitasuna eta multifuntzionaltasuna (bai diziplina arloetan, bai eguneroko bizitzako egoeretan), bai eta denboran duen iraunkortasuna ere. Ikaslearen osoko ebaluazioak lehen erreferentzia izan beharko luke testuan.

Asko dira kompetentzia orokorrak zehazten saiatzen diren proposamenak. Gure proposamena egiteko, UNESCOri egindako txostena lanean oinarritu gara, J. Delors buru duen txostenean. Bertan, hezkuntzako lau zutabe edo oinarri planteatzen dira: ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta norbera izaten ikasi. Funtzio horiei beste bat erantsi diegu: komunikatzen ikasi. Hezkuntza kompetentzia orokorrak kompetentzia zerrenda moduan adieraziko dira, eta hurrenkerak ez du lehentasunik adierazten.

1. adibidea: Pentsatzen eta ikasten ikastea

Informazioa interpretatzea: pentsamendu ulerkorra

Jasotzen den informazioa interpretatzea, prozesu kognitibo egokiak erabiliz, ezagutza, mundua eta besteak sakon ulertzeko.

Informazioa interpretatzeko kompetentzia gai jakin bati buruzko jakintza osatu eta zehaztuko duen edozein ezagutza mota argi ulertzea da, modu pertsonalean eta hautemangarrian azaltzea, eta extrapolatzea. Batetik, informazio hori prozesatzea eskatzen du; hau da: jabetza, irudikapena, transformazioa, bilketa eta, behar denean, berreskuratzea. Bestetik, oinarritzat buru prozesuak betetzea; esaterako: antzekotasunak eta desberdintasunak alderatzea, ezaugarri komunen arabera sailkatzea, zatiak guztiarekin lotzea, berrantolatzea eta ikuspegi berri bat aurkeztea, irizpide jakin baten arabera sekuentziatzea eta ideiak eta jarrerak oinarritzen dituzten arrazoiak aurkitzea. Kompetentzia hori garatuta, curriculumeko edukiak menderatu ahal izango dira –adierazpenezkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak– ekintzak, gertaerak edo teoriak aztertu, eta egiten eta esaten den guztia ulertzen dela erakustea.



Konparazioa

Objektuak, egoerak, erakundeak eta ideiak konparatzea, antzekotasun eta desberdintasun garrantzitsuak aurkituz, zer kategoriatakoak diren identifikatuz, eta ondorio bat azalduz, ezagutza argitu ahal izateko.

Ebaluazio irizpideak

- Konparatu egiten du giza adimenak gaitasun hori praktikatzan duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:
Zer antzekotasun dituzte?
Zer desberdintasun dituzte?
Zer kategoriatakoak dira ezaugarri horiek?
Zer antzekotasun eta desberdintasun dira garrantzitsuak?
Zer ondorio atera daitezke antzekotasun eta desberdintasun garrantzitsu horiek?
• Trebetasun horrek ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako zer garrantzi duen adierazten du.
• Bat-batean konparatzen ditu inguruak eta edukiak.

Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun horren praktikari laguntzen dioten curriculum edukiak aukeratzea.
- Konparaketaren urratsen bat edo guztiak nabarmen ditzaketen jarduerak diseinatzea.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten lantaldeak behatzea.
- Trebetasunaren jabetzaren erregistroa: 1) erabileraren maiztasuna: beti, batzuetan edo inoiz ez; 2) garapen maila: oinarrikoa, konplexua, integratua edo aurreratua; 3) erantzun ulerkorra: irakaslearen laguntzarik gabe, irakaslearen laguntza gutxi, laguntza zuzen asko, ez du aurrera egiten.

2. adibidea: Elkarrekin bizitzen ikasi

Gatazkak konpondu

Indarkeriarik gabeko irtenbideak topatzea “gutxienez batek bestek eragindako eragozpenaren edo haserrearen aurrean frustrazioa esperimendatzen duen” egoeretan; irtenbideak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez lortuko dira.

Gatazkei modu egokian aurre egiteko gaitasunak oinarri bat du: elkarreragin positiboko pertsonarteko gaitasun ona izatea, eta pentsamoldeak, interesak, nahiak edo/eta beharrak kontrajartzen diren egoera bereziki konplexuetan ezartzea, egoera horietan sortzen diren emozio negatiboak kontrolatuz, eta modu eraikitzailean bideratzeko gai izanez. Konpetentzia konplexua da, eta konpetentzia batzuk ongi erabiltzea eskatzen du: kognitiboak (hausnarketa prozesua: gatazka zergatik sortzen den identifikatzea, alternatibak aztertzea, aldeko eta kontrako arrazoiak baloratzea, etab.), afektiboak (autokontrola) eta etikoak (besteari gertatzen zaionarekiko kezka eta interesa garrantzitsua den heinean).



Emozioak erregulatzea eta kontrolatzea

Gatazka egoeretan sortzen diren emozioak ezagutzea, modu kontrolatuan bideratu eta adieraziz; hau da, gatazka sortu duen pertsonarekiko jarrera oldarkorak eta bortitzak agertu gabe, eta emozioak erreprimitu gabe.

Ebaluazio irizpideak

- Ikaskideekin/irakasleekin dituen harremanetan, tentsio emozionala, haserrea edo sumindura handia sortzen dioten egoerak identifikatzen ditu.
- Zenbait estrategia ezagutzen ditu tentsioa, haserrea edo sumindura eragiten dioten egoeretan ez aritzeko oldarkor eta modu erasotzailean, edo egoerak ez saihesteko.
- Erantzun oldarkorak eta erasotzaileak kontrolatzen ditu haserre edo suminduta dagoenean.

Ebaluaziorako orientazioak

- Saio bat emozio biziak sortzen dizkiguten egoeren inguruan hitz egiteko erabiltzea, eta beste bat emozioak autokontrolatzeko estrategien inguruan hitz egiteko. Ikasleei eskatu bakoitzak bere burua ebaluatzeko estrategia horien erabilerari dagokionez.
- Oldarkortasuna esperimintatu duten egoeren erregistro pertsonala eramatea, eta erantzunen arabera autoebaluatzea.
- Teknika soziometrikoak.

3.3.- Arloko Konpetentzia Orokorrak

Arlo jakin batean lantzeko aukeratzen diren konpetentzia orokorrak dira. Hezkuntza konpetentzia orokorretan jasota (haiekin lotuta) egon behar dute, nahiz eta idazkeran zehazki bat etorri ez, arloaren ikuspegitik esanahi handiagoa emateko.

1. adibidea: Hizkuntzak eta Literatura

Edozein gizarte arlotako idatzizko eta ahozko mota guztietako testuak ulertzea modu eraginkorrenan eta kritikoki; eta irakurritakoaren edo entzundakoaren emaitza helburu pertsonalei, sozialei, akademikoari erantzuteko erabiltzea, euskararen eta ukipeneko hizkuntza ofizialaren erabiltzaile gaitu mailan; erabiltzaile independente moduan Europako lingua franca batean, eta oinarrizko erabiltzaile mailan Euskal Herrian ukipen hizkuntza den bestean.

Konpetentzia orokor horretan biltzen ditugu ikasleek behar dituzten konpetentzia espezifiko guztiak bai testuak dioena dekodatzeko, bai zentzua osatzeko. Horretarako testuaren laguntza (ahozkoa edo idatzia) izango du, bai eta irakurleek edo entzuleek aurretiaz dituzten ezagutza, eta proposatutako helburuaren arabera.

Ikasleak giza komunikazioen arloetako testu generoak entzuten eta irakurtzen ikasi beharko du. Testu genero bakoitzak ezaugarri batzuk ditu, eta ulertzeko ikasketa espezifiko bat eskatzen dute. Horretaz gain, zenbait testu genero ezagutu ahal izango ditu, zenbait helburu lortzeko; adibidez: berari interesatzen zaion informazio jakin bat bilatzeko eta identifikatzeko (entzumen bideratua/hautazko irakurketa), informazio edukiaren eta ekoizpen testuinguruaren esanahia osatzeko (entzumen arretatsua/ irakurketa burutsua), atsegina lortzeko (atseginezko entzumena edo irakurketa), testuaren balorazio pertsonal bat emateko (entzumen edo irakurketa kritikoa). Entzumen edo irakurketa bakoitzak bere estrategiak eskatzen ditu, eta horiek ere ikaskuntzaren helburu izan beharko dute.

2. adibidea: Matematika

Eguneroko bizitzatik, beste zientzia batzuetatik edo matematikatik ateratako arazoak planteatzea eta ebaztea, bai bakarka bai, taldeka. Horretarako estrategia desberdinak aukeratu eta era-



biliko dira, ebazpen prozesua arrazonatuko da eta emaitzak egoera berrietan aplikatuko dira, gizartean modu arduratsuan aritzeko.

Funtsezko kompetentzia bat eta gaitasun nagusi bat da matematikaren arloan. Funtsezkoa da ikasle guztiak trebeak izatea, bakoitza bere mailan, egoera arazotsu bati aurre egiteko orduan, izan bizitza errealekoak edo izan testuinguru sozialetan eta zientifikoetan ager daitezkeenak. Matematikaren muina arazoak ebaztea da, ikasleek inguratzen dituzten munduan matematikak duen nagusitasuna eta erabilgarritasuna esperimendatzeko prozesua izateaz gain. Egoera gatazkatsuek jakintza beharrak zehatz ditzakete, eta kontzeptuzko arloak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak garatzeko motibazioa susta dezake.

Kontzeptuzkoak: Edukiak garatu eta hedatuz, beharrezkoak egoeren konplexutasuna areagotzen den heinean.

Prozedurazkoak: Arazoak ebazteko metodo heuristikoa ezagutu eta erabiliz.

Jarrerazkoak: Norberaren gaitasunen segurtasuna garatuz, jarraitasunez eta malgutasunez lan eginez, eta egoera arazotsuei aurre egiteko interesa eta inizatiba erakutsiz.

3.4.- Arloko Kompetentzia Espezifikoak

Arloko kompetentzia orokorrak zehatzago deskribatzen dituzten kompetentziak dira, eta ikasgelan gauzatu beharreko ikasketa iradokitze adinako zehaztasun maila izan behar dute.

Arlo bateko kompetentziaren lorpen mailaren adierazletzat hartu behar dira, eta ebaluazio prozesua bideratzeko jakingarri izan behar dute.

Ikasleek egin ditzaketen lanen interpretazioaren arabera ebaluatzeko moduan adierazi behar dira.

Sailkatu gabeko zerrenda moduan adierazi behar dira, baina arloko kompetentzia orokorrekin eta aukeratutako eduki multzoekin lotu behar dira.

Arloko Kompetentzia Orokorrak lortzeko duten garrantzia zehaztuko da.

1. adibidea: Hizkuntzak eta Literatura

Kompetentzia espezifikoak	Kompetentzia orokorrak						Eduki multzoak					Garran. (1-2-3)	
	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5		
1 Erabilera eremuetako gai ezagunei buruzko ahozko adierazpen luzeetako eta linguistikoki konplexuetako ideia nagusiez jabetzea, eta ahoz edo idatziz adieraztea.	X	X					X						1
2 Genero desberdinetako ahozko testuetan, eta erabilera esparru desberdinekoetan, entzumenaren helburuei erantzuteko beharrezko informazioak aukeratzea, horretarako datuak biltzeko prozedura egokiena erabiliz.	X						X						1
5 Gai konplexu bati buruzko ahozko aurkezpen garbiak eta ongi egituraturutakoak egitea bakarka, aurrez plangintza egin eta aurkezpen teknikak erabiliz.	X	X	X				X		X				2



4.2.- Eduki multzoak

Gaika bildutako eduki multzoak dira. Eduki multzoak ezagutza arlo jakin batekin lotutako zientzietatik ateratako jakintza multzoak hartzen saiatzen da.

Adibideak:

Diziplina arloa	Gai multzoak
1.- Hizkuntzak eta Literatura	1.- Ahozko komunikazioa; 2.- Idatzizko komunikazioa; 3.- Hizkuntzari buruzko hausnarketa; 4.- Hizkuntzaren dimentsio soziala; 5.- Literatura
2.- Matematika	1.- Zenbakiak eta Algebra; 2.- Neurria eta Geometria; 3.- Funtzioak eta Grafikoak; 4.- Estatistika eta Probabilitatea; 5.- Problemak ebaztea eta arrazonatzea.
3.- Teknologia	1.- Ahozko eta grafiko bidezko adierazpen eta komunikazio teknikak; 2.- Erabilera teknikoa duten materialak; 3.- Egiturak eta mekanismoak; 4.- Elektrizitatea eta elektronika; 5.- Energia eta transformazioa; 6.- Informazio eta Komunikazio Teknologia; 7.- Kontrola eta robotika.
4.- Musika eta Dantza	1.- Mugimendua eta dantza; 2.- Entzumen gaitasuna; 3.- Ahots adierazpena; 4.- Tresna bidezko adierazpena
5.- Plastika	1.- Marrazkia; 2.- Kolorea eta margoa; 3.- Eskultura, modelatua, bolumena eta eraikuntza; 4.- Irudia; 5.- Beste teknika batzuk: collagea, pirograbatua, grabatua; 6.- Munduko eta Euskal Herriko artearen historia.
6.- Soin Hezkuntza	1.- Norbere buruaren ezagutza; 2.- Gorputzaren kontrola; 3.- Mugimen komunikazioa; 4.- Osasuna; 5.- Etnomotrizitatea; 6.- Jolaserako dimentsioa.
7.- Gizarte Zientziak	1.- Non bizi gara; 2.- Zein eta zenbat gara; 3.- Nondik gatoz; 4.- Nola bizi gara elkarrekin eta nola ebazten ditugu arazoak; 5.- Nolakoak dira eta nola funtzionatzen dute erakundeek; 6.- Zer behar ditugu eta nola antolatzen gara horiei erantzuteko; 7.- Nondik lortzen ditugu beharrezko baliabideak; 8.- Zer ezaugarri nagusik definitzen dute egungo gizartea; 9.- Zein dira espazioa antolatzeko moduak; 10.- Zer unetan gaude eta nora goaz Euskal Herrian; 11.- Zer unetan dago eta nora doa egungo mundua.
8.- Mundu ikuskerak eta Erljiioak	1.- Pertsonak, gizona, emakumea, eta elkarbizitzaren etika: egungo baloreak eta gatazkak; 2.- Giza auziak eta zentzuaren bilaketa; 3.- Erljiioaren fenomeno eta kultur adierazpena; 4.- Euskal gizartea, nortasuna eta giza eskubideak; 5.- Erljiio motak eta adierazpenak Euskal Herrian; 6.- Gizartea, politika eta erlijioa: bizikidetzaren ardatzak.
9.- Natur Zientziak eta Osasun Zientziak	1.- Lurra eta unibertsoa; 2.- Materia; 3.- Aldaketak materialen; 4.- Izaki bizidunak; 5.- Gizakia eta osasuna; 6.- Zientzia testuinguruan; 7.- Zientziaren historia eta natura.
10.- Tutoretza eta Orientazioa	

4.3.- Edukien tipologia

Jarrerazko edukiak

- Ekintza nola gauzatu behar den adierazten dute, horren bidez ikaskuntzan balio inplizitu bat erakusteko. Hau da, kompetentzia definitzen duen ekintza “ongi” egiteko nola egin behar den adierazten dute.
- Jarrerazko edukiak ez dira ekintzak, ez dira kompetentziak; horien zati garrantzitsuak dira. Beraz, ez dira ekintza aditzen bidez adierazi behar.
- Jarrerak kompetentzietan jaso behar dira, kompetentzia ongi lortzeko beharrezkotzat hartzen direnean.



- Jarrerak konpetentzietan sartzen dira, eta ez dira haietatik kanpo ebaluatu behar.
- Eduki mota hori ongi etor daiteke curriculumaz gaindiko konpetentziak arloen konpetentzietan jasotzeko, batez ere arloaren konpetentzia espezifikoetan, horiek baitira hezkuntza konpetentzia hurbilenak.

Kontzeptuzko edukiak

- Konpetentzia bat lortzeko erabiltzen diren hitzei edo terminoei erreferentzia egiten dieten ikaskuntza helburuak dira.
- Gai zerrenda tradizionalen zati izan dira, eta, eskuarki, kontzeptuz antolatutako zerrendek osatu dituzte. Mota honetako edukitzat hartu behar dira bai semantika edo harreman ikasketak bilatzen dituztenak, bai ikaskuntza faktikoak bilatzen dituztenak.

Lortu beharreko konpetentzien zati diren kontzeptuzko edukien adibide asko daude:

- Ikaskuntza semantikoa (esanahia) helburu duten kontzeptuzko edukiak: ibaia, mendikatea, zatikia, bularrezurra, etab.
- Ikaskuntza faktikoa helburu duten kontzeptuzko edukiak: datu geografiko garrantzitsuak, irudi lauen areen formulak, etab.

Prozedurazko edukiak

- Ekintza bat ordenatuta gidatzeko jarraitu beharreko araei erreferentzia egiten dieten ikaskuntza objektuak dira.
- Prozedurak ez dira gauzatutako ekintza, gauzatzeko jarraitzen diren arauak baizik.
- Prozedurek egitura linealagoa eta mekanikoagoa izan dezakete. Oso linealak eta mekanikoak direnei algoritmo deitzen zaie, eta linealtasun eta mekanikotasun gutxikoei heuristiko.
- Prozedurak esplizituki irakatsi behar dira, eta ez da pentsatu behar ikasleek ezagutzen dituztela.
- Prozedurak ikaskuntza objektu interesgarriak dira eskuarki erabiltzen direnean.
- Modu honetan adierazi behar dira: ...-t(z)eko arauak.

Adibideak:

- Zenbaki arruntekin eta osoekin kalkuluak egiteko arauak.
- Eskemetatik abiatuz, zirkuituak inplementatzeko arauak.
- Testuaren ulermenezko irakurketarako arauak.
- Taula kronologikoak, denbora lerroak eta friso historikoak egiteko arauak.
- Eztabaida batean jarraitu beharreko arauak.
- Aurrekontu bat egiteko arauak.



- Laneko baja bat formalizatzeko protokoloa.
- Gai moral bati edo gatazka bati buruz eztabaidatzeko arauak.
- Fenomenoak eta egoera errealak behatzeko irizpideak.

5.- EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Arloko konpetentzia bakoitzerako definitzen dira, eta konpetentzia baten lorpen maila erabakitzeke kon-tuan izan beharreko arloak adierazten ditu.
- Ebaluazio irizpideak konpetentziak ere badira, baina konpetentzia espezifikoak baino zehatzagoak dira.
- Ebaluazio irizpideak konpetentzia baten lorpen maila zehazteko eskalak osatzeko baliatu behar dira.
- Arloko konpetentzia espezifiko bakoitzarentzat, beharrezko irizten diren adina ebaluazio irizpide definitzen dira.

1. adibidea: Hizkuntzak eta Literatura

Hizkuntzak eta Literatura arloko konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
1 Erabilera eremuetako gai ezagunei buruzko ahozko adierazpen luzeetako eta linguistikoki konplexuetako ideia nagusiez jabetzea, eta ahoz edo idatziz adieraztea.	1.1. Entzuteko jarrera aktiboa agertzen du, ahozkoak ez diren erantzunen bidez edo galdera laburrak eginez. 1.2. Apunteak hartzen ditu, eta ideia nagusiak eta xehetasunak bereizten ditu. 1.3. Gaia eta hiztunaren asmo komunikatiboa ondorioztatzen ditu. 1.4. Testuaren egitura eta ideien hierarkia islatzen dituen eskema edo laburpen bat egiten du.

2. adibidea: Matematika

Matematika arloko konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
1 Kritikoki interpretatzea zenbaki desberdinak dituzten testuinguruetatik datorren informazioa (arruntak, osoak, zatikiak, hamartarrak, etab.); lotu eta erabiltzea, kasu bakoitzerako adierazpen egokiena aukeratuz.	1.1. Zenbaki motak identifikatzen eta erabiltzen ditu, informazio kuantitatiboa ondo irudikatzeke eta interpretatzeko. 1.2. Zenbaki motak konparatzen, ordenatzen, sailkatzen eta irudikatzen ditu. 1.3. Zatikiak zenbaki hamartarrekin eta ehunekoekin lotzen ditu, eta kalkuluak segurtasunez egiten ditu. 1.4. Idazkera zientifikoa erabiltzen du kopuru oso handiak edo txikiak zehaztasunez adierazteke.

3. adibidea: Teknologia

Teknologia arloko konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
1 Arazo teknologikoak, errealak edo imajinatuak identifikatzea, ebazteke teknologia arloan bertan heldu eta gara daitezkeenak.	1.1.- Eskura dituen baliabideen bidez ebazteke teknologia arazoak identifikatzen ditu. 1.2.- Garbi definitzen du hautemandako arazoa, lexiko egokia erabiliz. 1.3.- Objektu bat edo sistema tekniko bat beharrezko bihurtzen duten arazoak deskribatzen ditu. 1.4.- Arazoarentzako beste irtenbide batzuk ezagutzeko interesa agertzen du.



4. adibidea: Musika eta Dantza

Musika eta Dantza arloko kompetentzia espezifikokoak	Ebaluazio irizpideak
1 Musika hizkuntza autonomiaz, egokitasunez eta esanahiz interpretatzea, ahotsaren eta musika tresnen bidez.	1.1.- Partitura bat tonu eta erritmo egokiz interpretatzen du. 1.2.- Partitura bat musika tresna baten bidez interpretatzen du, erritmo egokian. 1.3.- Partituran zehazten diren espresio irabardurak interpretatzen ditu.

5. adibidea: Plastika

Plastika arloko kompetentzia espezifikokoak	Ebaluazio irizpideak
1 Jatorrizkotik margotzea, kopia nahi den errealitatearen xehetasunen eta multzoaren arteko lotura eta proportzioak behatuz eta hautemanez.	1.1.- Errealitateko elementuei erreferentzia egitean, zatien eta osoaren arteko proportzioak mantentzen ditu. 1.2.- Distirak eta itzalak egokitzen ditu irudikatutako objektuaren errealitateara.

6. adibidea: Gorputz Hezkuntza

Gorputz Hezkuntza arloko kompetentzia espezifikokoak	Ebaluazio irizpideak
1 Oinarrizko emozioak identifikatzea (haserrea, agresibitatea, tristura, beldurra, poza, amodioa, gorrotoa, harridura, mespretxua, lotsa...), emozio horien mekanismoez jabetzea eta besteei komunikatzen jakitea.	1.1. Arreta jartzen du azalpenetan, eta errespetuz jarraitzen ditu. 1.2. Bere emozioen ezaugarriak adierazten ditu, praxemen bidez eta ahoz. 1.3. Jokoetan agertzen diren emozioak behatzen ditu, eta izenez identifikatzen ditu.

7. adibidea: Gizarte Zientziak

Gizarte Zientziak arloko kompetentzia espezifikokoak	Ebaluazio irizpideak
1 Zehatz eta zorrotz interpretatzea mapetako eta grafikoetako informazioak, errealitate historikoen, geografikoen, ekonomikoen eta abarren adierazle direnak, eta haien artean azalpen harremanak ezartzea.	1.1.- Mapa topografiko batetik abiatuz, bertan adierazitako espazioen erliebearen oinarrizko ezaugarriak deskribatzen ditu. 1.2.- Klima mapa batean, Euskal Herriko eremuen berezitasun klimatikoak identifikatzen ditu, eta lotura esanguratsuren bat ezartzen du erliebearen antolaketaaren eta klima eremu horien artean. 1.3.- Zenbait garaitako mapa historiko batzuetatik abiatuz, Euskal Herriko lurraldeetako edo beste edozein lurraldetako gertaera historikoen ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu. 1.4.- Gai mapa desberdinak alderatzean, korrelazio hautemangarri batzuk ezartzen eta deskribatzen ditu. 1.5.- Mota guztietako grafikoetako informazioak zuzen interpretatzen eta deskribatzen ditu: barra grafikoak (biztanleriaren piramidea, besteak beste), grafiko linealak (demografiaren bilakaerarena, energia kontsumoarena, errentaren bilakaerarena, sektore baten ekoizpenarena, etab.) edo sektore grafikoak (biztanleria sektoreka, energia erreserben banaketa, etab.).



8. adibidea: Mundu ikuskerak eta Erliioak

Mundu ikuskerak eta Erliioak arloko kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
1 Historiako erlijo nagusiak bereiztea eta kokatzea, antzekotasunak (antzeko ezaugarriak) eta desberdintasunak (pertsonak, irakasbideak, liburu sakratuak, sinboloak...) adieraziz.	1.1.- Historiako erlijo nagusiak dagokien testuinguruan kokatzen ditu. 1.2.- Munduko erlijo handien presentzia eta hedadura geografikoki kokatzen du. 1.3.- Bere inguruko erlijoekiko interesa agertzen du, eta haien ezaugarriak ezagutzen ditu.

9. adibidea: Natur Zientziak eta Osasun Zientziak

Natur Zientziak eta Osasun Zientziak arloko kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
1 Zientzietako datu, gertaera, tresna eta prozedura garrantzitsuak ezagutzea eta deskribatzea, azalpen zientifikoetan eta arazoak ebazteko erabili eta memorizatuz.	1.1.- Gertaera, datu eta prozedura zientifikoak identifikatzen ditu. 1.2.- Datu eta gertaera garrantzitsuenak gogoratzen eta deskribatzen ditu. 1.3.- Termino zientifikoak, sinboloak, magnitude unitateak, eskalak ezagutzen eta erabiltzen ditu. 1.4.- Badaki aparatuak, ekipoak, tresnak, gailuak erabiltzen. 1.5.- Zientzietan garrantzitsuak diren prozedurak deskribatzen ditu.



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Ikastolen Elkartea



kristau
eskola



sortzen
ikasbatuaz